

OZ-2021-032
B052-2021-00001
EE-2021-00089

PROZEDURA IDEGI ARRUNTAREN BIDEZ KONTRATAZINO-PROZESUA ARAUTUKO
DABEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA, HAINBAT ESLEIPEN-
ERISPIDE JASOTA, LARRABETZUKO UDALETXEA BERRIZTATZEKO OBRAREN
OBRA-PROIEKTUA IDAZTEKO ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOKO
ZERBITZURAKO.-

1. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZINO
ESKUDUNA

- 1.1 Izaera eta araubide juridikoa
- 1.2. Jurisdikzino eskuduna

2. KONTRATUAREN ALDERDIAK

a) Administrazino kontratatzailea

- 2.1. Kontratatzeke eskumena
- 2.2. Kontratuaren arduraduna
- 2.3. Kontratatzailearen profila

b) Kontratista

- 2.4. Kontratatzeke gaitasuna

3. KONTRATUAREN XEDEA, BETE BEHARREKO BEHARRIZANAK, GAUZATZEKO
EPEA ETA LUZATZEKO AUKERA

- 3.1. Kontratuaren xedea
- 3.2. Bete beharreko administrazino-beharrizanak
- 3.3. Burutzapen epea
- 3.4. Luzatzeko aukerea

4. LIZITAZINOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KONTRATUAREN BALIO
ZENBATETSIA, AURREKONTU-KREDITUA ETA URTEKOAK

- 4.1. Lizitazio oinarriaren aurrekontua
- 4.2. Kontratuaren balio zenbatetsia
- 4.3. Aurrekontu kreditua
- 4.4. Urtekoak

5. ESKATU DAITEKEZAN BERMEAK

A) Behin-behineko bermea

- 5.1. Eskakizuna eta zenbatekoa
- 5.2. Bermea emoteko moduak
- 5.3. Bermeak eragindako erantzukizunak
- 5.4. Azkentzea eta itzultzea

B) Behin betiko bermea

- 5.5. Eskakizuna eta zenbatekoa
- 5.6. Osoerea egiaztatzeko epea
- 5.7. Bermea emoteko moduak
- 5.8. Bermeak eragindako erantzukizunak
- 5.9. Birjarpen- eta doikuntza-araubidea
- 5.10. Behin betiko bermea itzultzea eta bertan behera ixtea

6. ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

- 6.1. Izapidetzea
- 6.2. Presazko izapidetzea
- 6.3. Larrialdiko izapidetzea

7. KONTRATISTEAREN LIZITAZINOA ETA AUKERAKETEA

- 7.1. Printzipioak: bardintasuna, gardentasuna, lehia askea eta konfidentzialtasuna.
- 7.2. Adjudikazio-prozedura
 - 7.2.1. Adjudikazio-erispideak
 - 7.2.2. Gixieneko puntuazio-atalasea
 - 7.2.3. Batzorde edo erakunde tekniko espezializatua
- 7.3. Proposamenak aurkezteko epea eta lekua
 - 7.3.1. Proposamenak aurkezteko epea
 - 7.3.2. Aurkezteko lekua
- 7. 4. Enpresa interesdunen proposamenak
 - 7.4.1. Proposamenak

- 7.4.2. Aldaerak
- 7.4.3. Proposamenen forma eta edukia
 - 7.4.3.1. Forma
 - 7.4.3.2. Proposamenen edukia
- 7.5. Enpresa lizitatzaillearen ondorengotza prozeduran
- 7.6. Kontratazio-mahaia eta proposamenak idegitea
- 7.7. Balio anormalak edo neurriz kanpokoak daukiezan eskaintzak
- 7.8. Esleipen-proposamenaren ondorioak

8. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA, FORMALIZAZINOA ETA KONTRATUAREN FORMALIZAZINOAREN PUBLIZIDADEA

- 8.1. Eskaintzen sailkapena
- 8.2. Dokumentazioa eskatzea
- 8.3. Lizitazioa hutsik
- 8.4. Esleipen-prozeduran atzera egitea edo kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabagia
- 8.5. Esleipena.
- 8.6. Esleipen-ebazpena jakinaraztea eta argitaratzea
- 8.7. Kontratua burutzea eta legezko egitea
- 8.8. Kontratuaren formalizazioaren publizitatea
- 8.9. Enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa itzultzea

9. KONTRATUA BETEARAZOTEA

- 9.1. Kontratua betearazotea
- 9.2. Administrazioaren prerrogatibak
- 9.3. Epea betetea
- 9.4. Exekuzio akastuna eta atzerapena
 - 9.4.1. Ez-betete partziala edo betete akastuna
 - 9.4.2. Berandutzea
- 9.5. Kontratistaren erantzukizuna, kontratua gauzatzean hirugarrenei eragindako kalteakaitik
- 9.6. Kontratuaren prezioa
 - 9.6.1. Prezio zehatza
 - 9.6.2. Kontratisteari egin beharreko ordainketak
 - 9.6.3. Ordaintzeko modua
 - 9.6.4. Faktura elektronikoa
 - 9.6.5. Prezioen berrikuspena
- 9.7. Kontratistaren betebeharrak
 - 9.7.1. Baliabide materialak eta giza baliabideak

9.7.2. Lan-, gizarte- eta zerga-betebeharrak eta ingurumenaren babesa

9.7.3. Aseguruak

9.7.4. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesa

9.7.5. Hizkuntza-arloan kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.

9.8. Kontratuaren aldarazpenak

9.9. Kontratua etetea.

10. KONTRATUAREN IRAUNGIPENA.

a) Zerbitzu-kontratua betetea.

10.1. Zerbitzu-kontratuak jasotea

10.2. Kontratuaren likidazioa.

10.3. Akatsak eta okerrak berme-epean

b) Kontratua suntsiarazotea

10.4. Kontratua suntsiarazoteko arrazoiak

11. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZINOA

11.1. Kontratuaren lagapena.

11.2. Azpikontratazioa.

1. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZINO ESKUDUNA

1.1. Izakerea eta araubide juridikoa

Agiri honetan aitatzen dan kontratua administrazio-izaerako zerbitzu-kontratutzat jotzen da, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko zehaztapenaren 8ko 9/2017 Legearen 12., 17. eta 25. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko zehaztapenaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantz, SPKL).

Kontratu hau honako honek arautuko dabe:

- Agiri honetan jasotako klausulak, karatulako zehaztapenak eta baldintza teknikoaren agiriagaz bat datozenak.

- 9/2017 Legea, zemendiaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko zezeilaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizinoa Espainiako ordenamendu juridikora egiten dauena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen dauena.
- Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartua (aurrerantzean, APKLEO), abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak aldatua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzena, eta 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dagozan Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen dauena (aurrerantzean, TAOL).
- 1995eko garagarriaren 17ko Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren III. Titulua.
- Erkidegoko, estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo tokiko kontratazioa arautzen dauen beste edozein xedapen, toki-eremuari aplikagarri bajakoz.
- Osogarri gisa, administrazio-zuzenbideko ganerako arauak aplikatuko dira, eta, halangorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazio-klausula zehatzen agiriaren eta baldintza teknikoaren agiriaren artean kontraesanik badago, agiri honetan xedatutakoa gailenduko da, gai eta zehaztapen teknikoetan izan ezik.

Administrazio-klausula zehatzen agiria, karatula eta eranskinak, preskripzio teknikoaren agiria (bai eta eranskinak be, egon ezker) eta hortik eratorritako kontratu-agiria kontratu-izakerea daukie.

2. KONTRATUAREN ALDERDIAK.

a) Administrazio kontratatzailea

2.1. Kontratatze eskumena

Kontratatze organo eskuduna baldintza-agiri honen karatulako c) letran adierazotakoa da.

2.2. Kontratuaren arduraduna

Hala bajagoko, baldintza-agiri honen karatulan adierazotako pertsona, edo kontratazio-organismoak kontratua gauzatzeko izendatzen dauena.

2.3. Kontratatzailearen profila.

Baldintza-agiri honen karatulako U atalean adierazotakoa.

Webgune instituzinonaletik sartuko da, eta kontratazino-organoaren kontratu-jarduereari buruzko datuak eta informazinoak jasoko dauz.

B) Kontratista

2.4. Kontratatzeko gaitasuna.

Kontratazino-prozedura honetan parte hartu ahal izango dabe pertsona natural edo juridiko espainiar edo atzerritarrek, banaka edo enpresaburuen aldi baterako alkartean, jarduteko gaitasun osoa badaukie, kontratatzeke debekurik ez badaukie, eta ekonomia-eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzen badabe, edo, SPKLk halan eskatzen dauen kasuetan, behar lez sailkatuta badagoz.

Enpresaburuek, era berean, kontratuaren gaia dan jarduereta edo prestazinoa aurrera erorateko eskatu daiteken enpresa edo lanbide arloko gaikuntzea euki beharko dabe.

Pertsona juridikoak: euren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak daukiezan xedeen, gaiaren edo jarduereta-eremuaren barruan dagozan prestazinoak daukiezanak baino ezingo dira kontratuen esleipendunak izan, eta kontratua behar lez gauzatzeko behar beste giza baliabide eta material izan beharko dabez.

- a) Batasuneko enpresak: Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu daben estatuetakoko enpresa ez-espainiarrak kontratatzeke gaitasuna izango dabe, ezarrita dagozan estatuko legediaren arabera prestazinoa emoteko gaituta badagoz.
- b) Aldi baterako enpresa-alkarteak: horretarako aldi baterako eratzen diran enpresa-alkarteak kontratatu ahal izango dabez, eta ez da beharrezkoa izango horreke eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua euren alde esleitu arte.
Aldi baterako alkarreetan dagozan enpresaburuak Administrazinoagaz behartuta geratuko dira modu solidarioan, eta alkarreke ordezkari edo ahaldun bakarria izentau beharko dabe, kontratuaren ondorioz sortzen diran eskubide eta betebeharrak berau amaitu arte beteteko adina eskumen izango dauzana. Dana dala, botere mankomunatuak sortu ahal izango dira, zenbateke handike kobrantzak eta ordainketak egiteke.

Lizitazinorako, aldi baterako alkartean sartuta egon gura daben enpresaburuek hori osotzen daben izenak eta egoerak eta bakotxaren partaidetzea adierazo beharko dabe,

bai eta formalki aldi baterako alkarte eratze konpromisoa hartzen dabela be, kontratuaren adjudikazinodun izan ezker.

Aldi baterako enpresaburu alkarteak eta kontratuak denbora berbera iraungo dabe, hau da, azken hori desegin arte.

3. KONTRATUAREN XEDEA, BETE BEHARREKO BEHARRIZANAK, GAUZATZEKO EPEA ETA LUZATZEKO AUKERA.

3.1. Kontratuaren xedea.

Kontratuaren xedea baldintza-agiri honen karatulako A atalean adierazotako prestazinoa da, beti be, hala bajagoko, loteen banaketa egokia eginda.

Kontratuaren kalifikazinoa SPKLren 17. artikuluan xedatutakotik ondorioztatzen da.

Kontratua osotzen daben baldintza-agiri honetan eta preskripzino teknikoan agirian jasotako baldintzetara egokituko da prestazinoa.

Baldintza-agiriaren karatulan halan baimentzen bada, pertsona edo enpresa lizitatzailleek adierazotako betekizunei eta baldintzei jagokezan aldaerak aurkeztu ahal izango dabez, puntu horretan zehaztutako gehieneko kopuruan.

Kontratuaren xedea lotetan zatitzen bada, lote bakotxa unitate funtzinonal bat da, eta modu independentean egin daiteke.

Kontratazio-organoak kontratuaren xedea lotetan zatitzen dauenean, honako honeek mugatu ahal izango dauz:

- a) hautagai batek edo lizitatzaille batek zenbat lotetarako aurkeztu daiken eskaintzea.
- b) pertsona edo enpresa lizitatzaille bakotxari esleitu ahal jakon lote kopurua. Kasu horretan, beren-beregi adierazo beharko da lizitazio-iragarkian eta administrazio-klausula zehatzen pleguaren karatulan. Gainera, esleipen-erispideak aplikatzearen ondorioz, pertsona edo enpresa lizitatzaille bateri iragarkian eta pleguaren karatulan adierazotako gehieneko lote-kopurua gainditzin dauen lote-kopurua esleitzen jakonean aplikatuko diran erispideak edo arauak sartu beharko dira. Erispide edo arau horreek objektiboak izan beharko dabe, eta ez diskriminatzaileak.

Era berean, loteren bat edo batzuk enplegu-zentro bereziei edo laneratze-enpresei erreserbatu ahal izango jakez, edo kontratu horreek enplegu babestuko programen

esparruan gauzatzeko gitxieneko erreserba-ehuneko bat, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoagaz bat etorri. Berebat, berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aitatzen diran erakundeen aldeko loteak erreserbatu ahal izango dira, xedapen horretan ezarritako baldintzetan.

Kontratazio-organismoak kontratuaren xedea lotetan banatzea eta, ganera, pertsona edo enpresa lizitatuak berari lote bat baino gehiago esleitu ahal izatea erabagiten dauenean, lizitatuak eskaintza integratuak batera esleitu ahal izango deus, beti be SPKLren 99.5 artikuluan ezarritako baldintza guztiak beteten badira.

Lotea esleitutako kontratuaren, kontratua arautzen dauen pleguaren karatulan beste aurreikuspenik ezartzen ez bada, lote bakotzak kontratu bat osotuko dau, eskaintza integratuak aurkezten diran kasuetan izan ezik, horretan eskaintza guztiek kontratu bat osotuko dabe eta.

3.2. Bete beharreko administratuzio-beharrizanak.

Kontratuaren helburua eta bete beharreko beharrizanak espedientearen hasierako ebazpenean jasotakoak dira. Onarpen-datu baldintza-agiri honen karatulako A atalean dago jasota.

3.3. Burutzapen epea.

Kontratuaren gehieneko iraupena edo exekuzinoa agiri honen karatulako N atalean adierazotakoa izango da.

Ezarritako epeak beteten direla bermatzeko beharrezkoak diran epe partzialak honakoak izango dira; eskaintzaren lan-planetik ondorioztatzen diranak edo Administratuzioak onartutako lan-programan finkatzen diranak.

3.4. Luzatzeko aukerea.

Halan bajagoko, baldintza-agiri honen karatulako N letran adierazotakoaren arabera aplikatuko da.

Karatulan halan aurreikusten bada, kontratua luzatu ahal izango da prestazioak barriz emoteko.

Luzapena kontratazio-organismoak erabagiko dau, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gitxienez hilabete bi lehenago jakinarazoten bada, salbu eta karatulan epe luzeagoa ezartzen bada; hilabete bi

baino gitxiagoko iraupena daukien kontratuak aurreabisatzeko betebeharretik salbuetsita geratuko dira. Ezelan be ezin izango da luzatu alderdien isilbidezko adostasunaren bidez.

Kontratistek ez dau kontratua luzatu beharrik izango SPKLren 198.6 artikuluan ezarritako suntsiarazpen-arrazoiak izaten danean, Administrazioa sei hilabete baino gehiago atzeratu bada prezioa ordaintzeko orduan.

Kontratu bat mugaeguneratzean ez bada formalizatu kontratistek egin beharreko prestazinoaren jarraitutasuna bermatzen dauen kontratu barria esleipen-prozeduran kontratazino-organoak aurreikusi ezin dauzen gertakarien ondorioz, eta prestazinoa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badagoz, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da, harik eta kontratu barria gauzatzen hasi arte. Gehienez be bederatzi hilabeteko epea, kontratuaren ganerako baldintzak aldatu barik, kontratu barriaren lizitazino-iragarkia kontratua amaitu baino gitxienez hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

4. LIZITAZINOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KONTRATUAREN BALIO ZENBATETZIA, AURREKONTU-ZAINPEKETEA ETA URTEKOAK.

4.1. Lizitazino oinarriaren aurrekontua.

Lizitazinoaren oinarrizko aurrekontua da kontratazino-organoak, Balio Erantsiaren ganeko Zerga barruan, kontratuaren arabera hitzartu daiken gehieneko gastu-muga, eskainitako prestazinoak gauatzeko.

Eskaintzek lizitazinarako eukiko daben oinarrizko aurrekontua baldintza-agiri honen karatulako D atalean agertzen dena izango da, eta edozein eskaintzatik zenbateko handiagoko bazterketa ekarriko dau. Hobekuntza beheranzkoa izango da, eta kopuru zehatz bat esleituko da.

Prezioa prestazinoaren osogaiei edo emoten edo exekututzen diran unitateei jagokezan unidade-prezioen arabera zehazten bada, eta prestazinoak administrazioaren beharizanen arabera badira, oinarrizko aurrekontuak gitxi gorabeherako izakerea eukiko dau. Kasu horretan, Administrazioak kontratuaren urteko gastuaren gehieneko aurrekontuaren % 20 baino gitxiago aldatzeko aukerea eukiko dau, gastuan jagokon aurrekontu-doikuntzea onartuz.

4.2. Kontratuaren balio zenbatetsia.

Kontratuaren balio zenbatetsia, balizko luzapenak barruan, BEZ barik, agiri honen karatulako D atalean adierazotakoa da.

SPKLren 204. artikuluan xedatutakoagaz bat etorri, pleguaren karatulan edo lizitazio-iragarkian kontratua aldatzeko aukerea aurreikusi bada, kontratuaren balio zenbatetsizat hartuko da haren lortu daiken gehieneko zenbatekoa, aurreikusitako goranzko aldaketa guztiak kontuan hartuta.

4.3. Aurrekontu kreditua.

Agiri honen karatulako E atalean adierazotako aurrekontu-aplikazioan kreditu egokia eta nahikoa dago kontratu hau beteteak Administrazioari ekarritako betebeharrak ekonomikoki erantzuteko.

Izapidetze aurreratuko kontratazio-espedituetan, jakokon ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egotearen etete-baldintzen mende egongo da betearazpena.

4.4. Urtekoak.

Baldintza-agiri honen karatulako F atalean adierazotakoa.

5. ESKATU DAITEKEZAN BERMEAK

A) Behin-behineko bermea

5.1. Eskakizuna eta zenbatekoa.

Kontratazio-organoak behin-behineko bermea eskatu ahal izango dau, salbuespen modura eta justifikatuta, baldintza-agiri honen karatulako K letran ezarritako zenbatekoagaz; berme hori ezingo da izan lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren% 3 baino handiagoa, BEZ barik.

5.2. Bermea emateko moduak.

Behin-behineko bermea SPKLren 108. artikuluen 1. paragrafoan aurreikusitako moduren batean edo batzuetan emon ahal izango da, behin betiko bermeari jakokon epigrafean zehaztuta.

5.3. Bermeak eragindako erantzukizunak.

Eskatzen bada, behin-behineko bermea eskaintzari eustearen erantzule izango da, kontratua burutu arte. Esleipendun suertatzen dan pertsona edo enpresa lizitazioarentzat, behin-behineko bermea SPKLren 110. artikuluen bigarren paragrafoak ezartzen dituzten betebeharrak betetearen erantzule be izango da

(kontratatzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazinoa aurkeztea, kontratuan erabili edo adskribatzeko konpromisoa hartu dauen baliabideak benetan erabiltea eta behin betiko bermea eratzea).

5.4. Azkentzea eta itzultzea.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko jake pertsona edo enpresa lizitatzailerei. Edozelan be, behin-behineko bermea behin betiko bermea eratu dauenean itzuliko jake esleipendun modura aukeratutako lizitatzaileri, eta behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatu ahal izango jake, edo behin betiko bermea barriro eratu ahal izango da.

B) Behin betiko bermea

5.5. Eskakizuna eta zenbatekoa.

Baldintza-agiri honen karatulako L atalean ezartzen dira eskakizun eta zenbateko horreek.

5.6. Osoerea egiaztatzeko epea.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen pertsona edo enpresa lizitatzailiak hamar egun balioduneko epea izango dau, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin betiko bermea osotu dauela egiaztatzeko.

Baldintza hori beteten ez bada berari egotzi ahal jakozan arrazoiakaitik, pertsona edo enpresa lizitatzailiak eskaintza erretiratu dauela ulertuko da, eta, kasu horretan, beharrezko dokumentazinoa eskatuko jake hurrengo pertsona edo enpresa lizitatzaileri, eskaintzak sailkatu diran hurrenkeraren arabera.

5.7. Bermea emoteko moduak.

Kontratuan eskatzen diran bermeak modu hauetako batean edo batzuetan emon ahal izango dira (SPKLren 108. artikulua):

- Eskudirutan edo zor publikoko baloreetan.
- Bankuetako edo aurrezki-kutxetako batek emandako abalaren bidez.
- Espainian jarduteko baimena daukien kreditu-kooperatibek, kreditu-establezimendu finantzarioek eta alkarren bermerako sozietateek emondako abalaren bidez.
- Arlo horretan jarduteko baimena daukan aseguru-erakunde bategaz egindako kauzino-aseguruaren kontratuaren bidez.

Bermeak HAKLEOn adierazotako eredueta egokituko dira kasu bakoitzean. Bermea eratu dala egiaztatu ahal izango da bitarteko elektronikoen bidez. Hirugarrenek emondako bermeen araubidea SPKLren 112. artikuluan ezarritakoa izango da.

5.8. Bermeak eragindako erantzukizunak.

Bermeak kontzeptu honeei erantzungo deute:

- a) Kontratisteari ez-betete partzialagaitik edo SPKLren 192. artikularen arabera oker beteteagaitik ezarritako zigorrak.
- b) Kontratuan jasotako prestazioak behar bez gautzea, kontratazio-organismoak kontratistak eskaintako hobekuntzak barruan, administrazioari sortutako gastuak kontratistak bere betebeharrak beteten berandutzeagaitik, eta kontratua gautzeagaitik edo ez beteteagaitik sortutako kalte-galerak, kontratua suntsiarazo behar ez denean.
- c) Kontratua suntsiarazoten danean agindu daiteken konfiskazioa, bertan edo SPKLn ezarritakoaren arabera.
- d) Emondako zerbitzuetan okerrik edo akatsik ez egotea kontratuan aurreikusitako berme-epean.

5.9. Birjarpen- eta doikuntza-araubidea.

Bermearen ganean pertsona edo enpresa esleipendunari eskatu ahal jakozan zigorrak edo kalte-ordainak ordaindu ezker, enpresa edo enpresa esleipendunak jakokoz zenbatekoan birjarri edo handitu beharko dau berme edo kalte-ordain hori, betearazoten danetik hamabost eguneko epean; bestela, kontratua suntsiarazoteko arrazoa izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, barriro doitu beharko da bermea, hamabost eguneko epean, enpresaburuari aldatuta-erabagia jakinarazoten jakon egunetik zenbatzen hasita, behar dan proportzioa euki daian aldatetaren ondoriozko kontratuaren prezio barriagaz. Ondorio horreetarako, ez dira kontuan hartuko SPKLren 103. artikularen eta hurrengoaren arabera prezioak berrikustetaren ondorioz izaten diran prezio-alaketak.

5.10. Behin betiko bermea itzultzea eta bertan behera ixtea.

Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta baldintza-agiri honen karatulan ezarritako berme-epea amaitu arte, edo, halan bajagoko, kontratuan jasotakoa amaitu arte, eta kontratua behar bez bete arte, edo kontratua kontratistaren erru barik suntsiarazo arte. Hori

guztia SPKLren 111. artikuluan eta HAPEn 65.2 eta 3. artikulutan ezarritakoaren arabera egingo da.

Harrera partzialaren kasuan, pertsona edo enpresa kontratistek bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko eskatu ahal izango dau, beti be baldintza-agiri honen karatulan beren-beregi baimentzen bada.

Kontratuak lagatzen diran kasuetan, lagatzaileak emondako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzailearena formalki eratuta egon arte.

6. ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

6.1. Izapidetzea.

Kontratazino-espedientea modu arruntean, presaz edo larrialdiz izapidetuko da, baldintza-agiri honen karatulako G letraren arabera.

6.2. Presazko izapidetzea.

Presazkotzat jotako espedienteak arrunten prozedura berari jarraituz izapidetuko dira, honako berezitasun honeek kontuan hartuz:

- a) Espedienteek lehentasuna eukiko dabe izapideetan parte hartzen daben organoek izapidetu daiezen; organo horreek bost eguneko epea eukiko dabe jagokezan txostenak egiteko edo jagokezan izapideak beteteko.
- b) Esleipen-prozedura zabaltzea erabagi ostean, SPKLn kontratua lizitatzeko, esleitzeko eta formalizatzeko ezarritako epeak erdira murriztuko dira, beti be 153. artikuluko 3. paragrafoan kontratua formalizatu aurreko itxaronaldi modura ezarritako hamabost egun balioduneko epea izan ezik.
- c) Prozedura idegian proposamenak aurkezteko epea, erregulazino harmonizatuko zerbitzu-kontratuetan; epe hori murriztu ahal izango da SPKLren 156. artikulua 3) idatz-zatiko b) letran adierazotakoaren arabera.
- d) Eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 6 egun lehenago, beranduenez, contratazino-organoaren mendeko zerbitzuek pertsona edo enpresa lizitatzailari eskatutako informazino gehigarria emoteko, 4 egun izango dira, beranduenez, erregulazino harmonizatuko zerbitzu-kontratuetan, beti be prozedura idegien bidez esleitzen badira.

6.3. Larrialdiko izapidetzea.

Larrialdiko izapideekin kalifikatutako espedienteek salbuespenezko araubide hau eukiko dabe:

Kontratazio-organismoak, administrazio-espedita izapidetzeko betebeharrak gabe, izandako gertaera konpontzeko, sortutako beharrian erantzuteko edo haren xedea, osorik edo zati batean, askatasunez kontratatzeko behar duna betearazoteko agindu ahal izango dau, SPKLn ezarritako betekizun formalak bete barik, baita kreditu nahikoa egotearena be. Jagokoa akordioagaz batera, jagokoa kreditu-atxikipena aurkeztuko da, edo kreditua aldatzeko espedita hastea justifikatzen dauen dokumentazioa.

Prestazioak gauzatzen hasteko epea ezin izango da hilabete baino luzeagoa izan, aurreko erabagia hartzen danetik zenbatzen hasita. Epe hori gainditu ezker, prestazio horreek kontratatzeko prozedura arrunta izapidetu beharko da.

Salbuespenezko araubide honen xede diran jarduketak gauzatu ostean, lege honetan kontratuak beteteari, prestazioa jasoteari eta likidatzeari buruz xedatutakoa beteko da.

7. KONTRATISTEAREN LIZITAZIOA ETA AUKERAKETEA

7.1. Printzipioak: bardintasuna, gardentasuna, lehia askea eta konfidentzialtasuna.

Kontratazio-organismoak bardintasunezko eta diskriminazio bako tratamendua emongo deute enpresa lizitatuilei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dau.

Ezin izango da ezelan be mugatu forma juridikoaren edo irabazi-asmoaren arabeko partaidetza kontratazioan, laugarren xedapen gehigarrian jasotako erakundeentzat gordetako kontratuetan izan ezik.

Kontratazioa ez da pentsatuko publizitate-betekizunak edo esleipen-prozedurari jagokozonak saihesteko, ezta lehia artifizialki murrizteko be, enpresaburu jakin batzuei mesede edo kalte eginez. Kontratazio-organismoak lehia askea zainduko dau esleipen-prozedura osoan, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, hala bajagoko, autonomia-erkidegoetako lehia-agintaritzari jakinarazoko deute beren eginkizunak betetean ezagutzen daben edozein gertakari, beti be lehiaren defentsarako legeria urratzen badabe. Zehazki, pertsona edo enpresa lizitatuileen artean akordio, erabagi edo gomendio kolektibo, edo praktika hitzartu edo nahita paraleloa dan edozein zantzu jakinarazoko dabe, kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko helburua badauka edo euki ahal badau.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoan legerian eta adjudikazioaren publizitateari eta pertsona edo enpresa lizitatuilei emon beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenetan xedatutakoari kalterik egin barik, kontratazio-organismoek

ezin izango dabe zabaldu enpresaburuek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo daben informazioa. Konfidentzial-izakereak eragina dauka, besteak beste, sekretu tekniko edo merkataritzakoetan, eskiantzen alderdi konfidentzialetan eta eskumena faltsutzeko erabili daiteken edukia daukien bestelako informazioetan, dala lizitazio-prozedura horretan, dala hurrengo batzuetan.

Kontratistek kontratua gauzatzen dabilen bitartean lortutako informazio konfidentziala errespetatu beharko dau, baldintza-agirietan edo kontratuan informazioak isilpeko izaera badauka. Gauza bera egingo da izakerarengaitik tratamendu hori daukan informazioagaz. Betebehar hori bost urtean mantenduko da, informazio hori jakin denetik, salbu eta baldintza-agiriaren edo kontratuaren karatulan epe luzeagoa ezartzen bada.

7.2. Adjudikazio-prozedura.

Kontratua prozedura idegiaren bidez esleituko da, eta eskaintzarik onenari esleituko jako, baldintza-agiri honen karatulako J atalean ezarritako balorazio-erispideen arabera.

Prozedura idegian, enpresa interesdun guztiek aurkeztu ahal izango dabe proposamen bat, eta kanpoan geratuko dira kontratuaren baldintzen negoziazio guztiak enpresa lizitatuakaz.

7.2.1. Adjudikazio-erispideak

Eskaintzak baloratzeko, esleipen-erispide bakarra edo hainbat erispide erabili ahal izango dira.

Kontratua esleitzeko oinarri modura erabili behar diran eskaintzak baloratzeko erispideak, garrantziaren arabera eta esleitzen zaien haztapenaren arabera, baldintza-agiri honen karatulako J atalean jasoten dira.

7.2.2. Gitxieneko puntuazio-atalasea.

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoagaz bat etorritz, esleipen-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, baldintza-agiri honen karatulako J atalean jasotako hautaketa-prozesuan jarraitzeko erispide kualitatiboetan puntuazioaren ehuneko 50eko gitxieneko atalasea eta erispideak aplikatuko dira.

7.2.3. Batzorde edo erakunde tekniko espezializatua.

Prozedura idegi baten bidez jarraitzen dan lizitazio batean balio-judizino baten araberako kuantifikazioa daukien erispideei formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitekezan

erispideei baino haztaper handiagoa emoten jakenean, kualifikazio egokia daukien adituek osotutako batzorde bat eratu beharko da, gitienez hiru kide izango dauzena, eta kontratazio-organismoaren mendeko zerbitzuak izan ahalko dira, baina ezela be ezingo dira izan kontratua proposatzen dauen organismoari atxikitakoak (hari jagoko eskaintzak ebaluatzea edo ebaluazio hori erakunde teknikoaren baten esku ixtea). Baldintza-agiri honen karatulo J atalean adierazoten dana izango da batzorde edo erakunde tekniko espezializatua.

Ganerako kasuetan, kontratazio-mahaiak baloratuko dauz balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko erispideak, bai eta formulak erabiliz ebaluatu daitezkean erispideak be. Horretarako, SPKLren 150.1 eta 157.5 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera beharrezkotzat jotzen diran txosten teknikoak eskatu ahal izango dira.

Edozelan be, eskaintzak formulak aplikatuz kuantifikatu daitezkean erispideen arabera ebaluatuko dira, aurrez inguruabar hori gertatzen ez dan beste erispide batzuen egin ostean, eta hori agiri bidez jasoko da.

Aurretiazko ebaluazio hori formulak aplikatuz baloratuko diran eskaintzaren elementuak jasoten dauzen gutun-azala zabaltzen dan ekitaldian argitaratuko da.

7.3. Proposamenak aurkezteko epea eta lekua

7.3.1. Proposamenak aurkezteko epea.

Epea agiri honen karatulo Q atalean adierazotakoa izango da.

Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira, asteko 7 egunetan; eskaintza aurkezteko eguna eta ordua Udalaren Erregistro Elektronikoa emondako frogagiri jasotakoak izango dira, eta eskaintza jasoten dan unean bertan aurkeztu beharko dira (edozelan be, eskaintzak sartzeko azken eguna 14: 00etan amaituko da).

Eskaintzearen "hash" aztarna elektronikotzat hartzen da datu multzo bat, sortze-prozesuak bermatzen dau-eta argi eta garbi lotzen dirala eskaintzearen edukiagaz, eta aukera emoten dauela eskaintzearen edukian izan daitezkean aldaketak detektatzeko, haren osotasuna bermatuz; izan be, aukera emoten dau egiaztatze haren edukia ez dala aldatu lizitatuak bialdu ebanetik.

Lizitatuak arazo teknikoak badaukiez eskaintza bialtzeko orduan (adibidez, eskaintzearen tamainaren ondorioz eskaintza transmititzeko zailtasunak aurreikusten diranean, sarearen konexio-arazoak dagozanean, eta abar), eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen bialdu beharko dabe eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa. Kasu

horretan, 24 orduko epea izango dabe eskaintzea bialdu ahal izateko. Epe hori zenbatuko da "hash" aztarna elektronikoa udala@larrabetzu.eus helbide elektronikora bidaltzen dan unetik aurrera, beti be eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen

Lizitatzailleek Udalaren helbide elektronikora bialdu beharko dabe beren eskaintzaren "hash" hatz-marka (ez irudia), espediente-zenbakia eta enpresa lizitatzaillearen identifikazino-datuak adierazota, Kontratazino Mahaiak egiaztatu ahal izan daian hatz-marka digital hori bat datorrela aurkeztutako eskaintzaren aztarneagaz, ha bialdu ostean.

Eskaintza baten edukia ezin bada eskuratu artxiboa hondatuta dagoalako, lizitatzaillearen ekipoa automatikoki sortutako tokiko kopiara jo daiteke, eta egiaztatu eskaintzaren aztarna digitala bat datorrela kontratazino-organoaren esku dagoanagaz.

7.3.2. Aurkezteko lekua.

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ezin izango dira aurkeztu derrigorrean, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunakaz bat etorriz. Horretarako, Larrabetzuko Udalaren lizitazino-plataforma erabiliko da, kontratazino publiko elektronikoko prozeduretan enpresen eskura ipinten dana, hatan be.

<http://www.larrabetzu.eus/es-ES/Ayuntamiento/Perfil-Contratante/Paginas/default.aspx>

Elektronikoki lizitatu ahal izateko, lizitatzailleak eskaintzak aurkezteko aplikazinoa deskargatu beharko dau alde z aurretik:

<https://apps.bizkaia.eus/sobresjnlp/webstart/aplicacionOfertas.jnlp>

Eskaintzea sinadura elektroniko autortuaren bidez sinatu behar da, plataformak onartutako ziurtapen-zerbitzuen emoile batek baliozkotasunez emona, beti be dokumentuaren, eskaintzeren eta haregaz lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatuz, hori guztiori Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazino publiko elektronikoko gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Eskaintza elektroniko bateri erantsitako banakako fitxategi bakotxaren gehieneko tamaina baimendua 30 MB-koa da.

Plataformak ez dau mugarik ezartzen eskaintza bateri erantsitako fitxategi kopuruari jagokonez. Eskaintza baten aurkezpenean erantsitako dokumentuetarako formatu honeek onartzen dira:

- .doc | .docx: Microsoft Word-en jatorrizko testu-formatuak.
 - .xls | .xlsx: Microsoft Excel-en kalkulu-orri natiboaren formatua.
 - .ppt | .pptx: Microsoft PowerPoint-en jatorrizko aurkezpen-formatua.
 - .rtf: testu estandarreko formatuak.
 - .sxw: Star Office-ren jatorrizko testu-formatua.
 - .abw: Abiword-en jatorrizko testu-formatua.
 - .pdf: Adobe Acrobat-en jatorrizko dokumentu-formatua.
 - .jpg: formatu grafikoa.
 - .bmp: Microsoft Windows-en jatorrizko formatu grafikoa.
 - .tiff | .tif: formatu grafikoa.
 - .odt: OpenDocument-en formatua, testua.
 - .ods: OpenDocument-en formatua, kalkulu-orria.
 - .odp: OpenDocument-en formatua, aurkezpena.
 - .odi: OpenDocument-en formatua, aurkezpena.
 - .zip: Winzip-en jatorrizko formatu konprimatua, Microsoft Windows-ek jan beharrekoa.
-
- .dwg: AutoCAD-en marrazki-formatua.

Beste formatu batzuetako fitxategiak eransteko neurri alternatibo gisa, fitxategi konprimatu (ZIP) batean bildu daitezke.

Lizitatzailleen ardurea da eskaintzak birus barik egon daitezan zaintzea. Edozelan be, birusen bat egoteak ez dau esan gura eskaintzatik kanpo geratuko danik, eskaintzèaren edukia eskuratu badaiteke. Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, Kontratazio Mahaiak erabagiko dau horren inguruan.

Jakinarazpen elektronikoak jaso ahal izateko, lizitatzailleek alta emon beharko dabe Larrabetzuko Udalaren egoitza elektronikoan, "Nire lizitazioak" atalaren bidez, "Kontsultatu nire izapideak" botoiaren barruan, hemen: <http://www.larrabetzu.eus/es-ES/Tramites/Paginas/default.aspx>

7. 4. Enpresa interesdunen proposamenak.

7.4.1. Proposamenak.

Proposamenak aurkezteak esan gura dau pertsona edo enpresa lizitatzailleak baldintza barik onartzen dauzela agiri honetako klausula guztien edukia, karatulako zehaztapenak eta gainerako kontratu-dokumentuak, salbuespenik edo erreserbarik barik, eta erantzukizunpeko adierazpena egiten dauela, aurkeztutako datu guztiak zehatzak dirala eta Administrazioagaz kontratatze eskatzen diran baldintza guztiak beteten dauzela.

Behin dokumentazinoa aurkeztuta, ezin izango da ezelan be kendu edo aldatu.

Pertsona edo enpresa lizitatzailerak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dau, aldaerak onartzeari buruz xedatutakoari kalterik egin barik. Era berean, ezin izango dau aldi baterako alkarte batean beste enpresaburu batzuek proposamenik sinatu, banaka egin badau, edo aldi baterako alkarte batean baino gehiagotan agertu bada. Arau horreek urratu ezker, ez da onartuko berak sinatutako proposamen bat be ez.

Kontratuaren xedeak lotetan zatitzea ahalbidetzen badau, enpresek kontratuaren xede osoaren ganean egin ahalko dau eskaintzea, loteen arabera banakatuta, edo kontratuaren xede diran loteetako baten edo batzuen ganean, beti be karatulan beste araubide bat xedatu ezean.

7.4.2. Aldaerak.

Aldaerak eta baldintzak onartzeko, baldintza-agiri honen karatulako M letran xedatutakoa bete beharko da.

7.4.3. Proposamenen forma eta edukia.

7.4.3.1. Forma

1. Gutun-azal itxiak.

Proposamenak gutun-azal elektronikoetan aurkeztuko dira.

2. Gutun-azal kopurua.

a) Gutun-azal bi aurkeztuko dira, esleipen-erispide bakarri ezartzen bada (prezioa) edo esleipen-erispide guztiak automatikoki kuantifika badaitezke:

A GUTUN-AZALA. Dokumentazio administratiboa:

C GUTUN-AZALA. Automatikoki kuantifikatu daitezkean erispideei buruzko dokumentazinoa.

b) Hiru gutun-azal aurkeztuko dira, automatikoki kuantifikatu ezin diran esleipen-erispideak eta automatikoki kuantifikatu daitezkean esleipen-erispideak ezartzen badira.

A GUTUN-AZALA. Dokumentazio administratiboa.

B GUTUN-AZALA. Automatikoki ezin kuantifikatu daitezkean erispideei buruzko dokumentazinoa.

C GUTUN-AZALA. Automatikoki kuantifikatu daitezkean erispideei buruzko dokumentazinoa.

Gutun-azal bakotxaren barruan, orri independentean, barruan daukiezan dokumentuen zenbaki-zerrendea jasoko da.

3. Hizkuntzea.

Atzerriko enpresek ofizialki gaztelaniara edo euskerara itzulita aurkeztuko dabe dokumentazinoa.

7.4.3.2. Proposamenen edukia.

Gutun-azalek agiri honeek euki beharko dabez:

A. GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

Gutun-azal horrek dokumentazino hau eukiko dau:

1. Enpresa lizitatzaillearen identifikazino-datuak. Jakinarazpen telematikoak bialtzeko IFK edo IFZ bat jasoko da gitxienez, ordezkariaren ziurtagiri elektronikoaren edo ziurtagiri pertsonalaren bidez, hurrenez hurren. Enpresa lizitatzailleak posta elektronikoko helbide bat adierazoko dau, administrazinoak Udalaren egoitza elektronikoan egin beharreko agerraldi-sistemaren bidez izapidetu behar ez diran jakinarazpenak egin daizan, berbarako kontratatzailearen profilean argitaratu izanaren abisu gisa Dokumentazino orokorra zuzentzeko edo jendaurrean zabaltzeko errekerimendua.
2. Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduak ezarritako Europako Kontratazino Agiri Bakarraren (EKAB) formularioagaz bat datorren erantzukizunpeko adierazpena, enpresa lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua. Aldi baterako enpresa-alkarteen kasuan, bakotxak EKAB agiria aurkeztuko dau.
SPKLren 75. artikularen arabera, enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen badauz, bakotxak bere EKAB agiria aurkeztuko dau.
Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizun desbardinak daukiezan loteen bidezko lizitazinoetan, parte hartzen dan lote adina autorpen aurkeztu beharko dira, behar lez sinatuta.
Erantzukizunpeko adierazpenari, hala jagokonean, ABEEa eratzeke konpromisoaren agiria erantsiko zaio, III. eranskinaren arabera, aldi baterako enpresa-alkartea eratzen bada.
Esleipenaren aurreko fasean administrazinoaren aurreko aldi baterako alkartzea eraginkorra izan daiten, beharrezkoa izango da bertan parte hartu gura daben enpresaburuek honako honeek adierazotea: alkartea osotzen daben

enpresaburuen izenak eta inguruabarrak; kontratua indarrean dagoan bitartean guztien ordezkaritza osoa euki behar dauen pertsona bakotxaren partaidetza-ehunekoa; eta aldi baterako alkartean formalki eratze konpromisoa, kontratuaren adjudikazinodunak izan ezker. Alkartea osotzen daben enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dabe aitatutako agiri hori.

3. Behin-behineko bermea eratu dala egiaztatzen dauen agiria, baldintza-agiri honen karatulako k) idatz-zatiaren arabera eskatu ahal danean.

Aldi baterako enpresa-alkarteen kasuan, parte hartzen daben enpresetako batek edo batzuek eratu ahal izango dabez behin-behineko bermeak, beti be, oro har, eskatutako zenbatekoa lortzen bada eta aldi baterako alkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badira. .

4. Talde bereko enpresen zerrendea. Balio anormalak edo neurriz kanpokoak daukiezan eskaintzak zehazteko, enpresa lizitatzailleek taldeko sozietateen zerrendea aurkeztu beharko dabe, soziedade-talde bereko enpresen kasuan.
5. Atzerriko enpresek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak. Ganera, atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diran gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo deusiela dinoen autorpena aurkeztu beharko dabe, eta behar izan ezker, lizitatzailleari jagokon atzerriko eskumen-foruari uko egingo deusiela azalduko dabe.

Europar Batasuneko kide ez diran edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu daben estaduetako enpresek honako honeek aurkeztu beharko dabez:

- Enpresaren egoitzako Espainiako Misino Diplomatiko Iraunkorrak edo Bulego Kontsularrak emoten dauen eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen dauen txostena. Bertan, enpresak alde aurretik egiaztatu beharko dau tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta dagozala edo, halangorik ezean, kontratuaren xede diran jardueren esparruan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten dabela.
- SPKLren 68. artikuluan aitatzen dan alkarregazkotasun-txostena. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan ez da alkarregazkotasunaren ganeko txostenik egingo Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu daben estaduetako enpresei jagokenez.

Kontratazio-organoak edo mahaiak hautagai edo lizitatzaillei eskatu ahalko deutse frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko, adieazpenaren indarraldiari edo sinesgarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak dagozanean, prozedurearen garapen egokirako beharrezko danean eta, edozelan be, kontratua esleitu aurretik.

Pertsona edo enpresa lizitatzailerak eskatutako dokumentazioa emondako epean aurkeztu beharko dau, gehienez be bost egun balioduneko epean, errekerimendua bialtzen danetik zenbatzen hasita. Errekerimendua adierazotako epean behar lez beteten ez bada, ulertuko da pertsona edo enpresa lizitatzailerak eskaintza erretiratu dauela eta prozeduratik kanpo geratuko dala.

Halanda be, enpresaburua edo enpresea Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribiduta dagoanean edo Europar Batasuneko estatu kide baten datu-base nazionalean ageri danean, enpresearen espediente birtual lez, dokumentuen bilketa elektronikoaren sistema edo aurrekalifikazinarako sistema lez, eta horreek organoek doan jaso ahal badabez, ez dau eukiko frogagiriak edo aitaturako lekuetan inskribidutako datuen bestelako frogagirik aurkezteko beharrik.

Kontratetako gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko zirkunstantziek eskaintzak aurkezteko azken egunean egon beharko dabe indarrean eta kontratua perfektzionetan dan unean be holan egon beharko dabe.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIRAN ERISPIDEAK

Gutun-azal honetan sartuko da eskaintzak balioesteko eta haztatzeko behar dan dokumentazio guztia, baldintza-agiri honen karatulako j.2 atalean zehazten diran eta automatikoki kuantifikatu ezin diran esleipen-erispideei edo balioespen subjektiboko erispideei jagokenez.

Eskaintza ekonomikoari edo automatikoki edo formulen bidez kuantifikatu daitekezan erispideei buruzko dokumentazioari buruzko gutun-azal hori ez da ezelan be jasoko. Lizitazioan sartzea lizitaziotik kanpo geratzeko arrazoia izango da.

C GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEKEZAN ERISPIDEAK

C gutun-azalaren barruan, II. eranskinaren arabera eskaintza ekonomikoa eta automatikoki kuantifikatu daitekezan beste erispide batzuei buruzko dokumentazioa sartuko dira.

Proposamen ekonomikoa makinaz idatzita eta lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, baldintza-agiriaren II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintzea aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen dauena argi eta garbi ezagutzea eragozten daben omisioak, akatsak edo zirriborroak daukiezanak.

Proposamenean partida independente modura adierazoko da Balio Erantsiaren ganeko Zergaren zenbatekoa.

Ondorio guztietarako, ulertuko da eskainitako prezioan sartzen dirala kontzeptu guztiak, edozein zerga-eremutako gastuak, tasak eta arielak, bai eta kontratistearen onura industrialak be, BEZa izan ezik, partida independente modura jasanarazoko da-eta.

Proposamenen bat aztertutako eta onartutako dokumentazioagaz bat ez badator, lizitazio-mueta gainditzen badau, ezarritako eredu nabarmen aldatzen badau, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena eragiten badau, edo pertsona edo enpresa lizitatuak proposamena bideraezin bihurtzen dauen akats edo funtsik eza daukala autortzen badu, Mahaiak baztertu egingo dau, ebazpen arrazoituan. Aitzitik, ereduko berba batzuk aldatzea edo ez aitatzea ez da nahikoa arrazoi izango arguiatzeko, horrek zentzua aldatzen ez badau. Eskaintza ekonomikoko kontu-akatsak zuzendu egingo dira.

Letretan adierazotako eskaintzearen eta zenbakietan adierazotakoaren artean desadostasunik badago (zenbatekoa lizitazio-tasa baino handiagoa danean izan ezik), letretan adierazotako kopurua izango da nagusi, salbu eta, dokumentazioa aztertutik eratorritako arrazoizko erispideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen badau.

Pertsona edo enpresa lizitatuak bakotzak ezingo dau proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina baldintza-agiri honen karatulan baimentzen bada, baimentzen diran aldaera guztiak jaso ahal izango dauz, eta, ondorioz, baita eskaintza ekonomiko alagarriak be.

Erreferentzia teknikoak. Era berean, pertsona edo enpresa lizitatuak preskripzio teknikoen agirian beren-beregi adierazoten dan beste edozein dokumentu aurkeztu beharko dau, eskaintzak eskatutako zehaztapen teknikoak beteten dauzela baina balioetsiko ez dirala egiaztatzeko. B gutun-azalean sartuko dira, gutun-azal hori gureztala aurkeztu behar bada, eta, osterantzean, C gutun-azalean.

7.5. Enpresa lizitatuaren ondorengotza prozedura

Prozedura bat izapidetzen dan bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresa lizitatuak baten nortasun juridikoa iraungitzen bada bat egiteko, zatitzeko, enpresa-ondarea edo jardueraren adar bat eskualdatzeko eragiketa baten ondorioz, prozedura haren lekua hartuko dau sozietate xurgatuak, bat-egitearen ondoriozko sozietateak, zatiketaren onuradunak edo enpresa-ondarearen edo jagokon ondarearen edo jardura-adarraren eskuratuak, beti be kontratatuzko gaitasun-baldintzak eta debekurik eza beteten badauz eta bere kaudimena eta sailkapena egiaztatzen badauz

administrazio-klausula zehatzen agiri honetan eskatzen diran baldintzetan, prozedura honetan parte hartu ahal izateko.

7.6. Kontratazio-mahaia eta proposamenak idegitea

Kontratazio-mahaia da administrazio-dokumentazioa kalifikatzeko eta eskaintzak baloratzeko organo eskuduna, eta SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eratuko da.

Mahaiaren osoera kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, lizitazio-iragarkiagaz batera. Edozelan be, kideen kargua argitaratuko da, eta ezin izango da aitamen orokor edo zehaztubakorik egin, ez eta zerbitzuak emoten dabezan administrazioari buruzkoak bakarrik be.

Kontratazio-mahaiaren funtzionamendu-araubidea SPKLn eta ha garatzeko xedapenetan araututakoa da.

Proposamenak idegitea. "C" gutun-azala ekitaldi publikoan zabalduko da, Larrabetzuko udaletxean (Askatasuna enparantza, 1 48195 Larrabetzu, Bizkaia), beti be deialdia egin ostean. "B" gutun-azala ere ekitaldi publikoan idegigo da, karatulan horrela zehatzen danean.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaiak lehen egintza bat egingo dau, publikoa ez dana, a) gutun-azala zabaltzeko: administrazio-dokumentazioa eta dokumentuen kalifikazioa.

Mahaiak ikusten badau aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitekezan akatsak edo omisinoak dagozala, zuzentzeko eskatuko dau, eta, horretarako, kontratatzailearen profilean argitaratuko dau, egokitze jotzen dauzen beste bitarteko batzuk erabilteari kalterik egin barik. Mahaiak hiru egun balioduneko epea emongo dau, iragarkia profilean argitaratzen danetik kontatzen hasita, lizitatzailerik zuzendu edo konpondu daiezan.

Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta, hala bajagoko, ikusitako akatsak edo omisinoak zuzendu ostean, pertsona edo enpresa lizitatzailerik zeintzuk diran zehaztuko dau, eta beren-beregi adierazoko dauz lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak.

Automatikoki kuantifikatu ezin diran erispideen B) gutun-azala ekitaldi publikoan zabaltzeari jagokonez, Mahaiak pertsona edo enpresa lizitatzailerik aurkeztutako dokumentuen kalifikazioaren emoitza jakinarazoko dau, lizitazioan onartutakoei, baztertutakoei eta atzera botateko arrazoei buruzko beren-beregiko adierazpena jasota.

Ostean, onartutako pertsona edo enpresa lizitatzailerik automatikoki kuantifikatu ezin dabezan erispideen B) gutun-azala zabalduko dau, eta bertan jasotako dokumentazioa sail sustatzailearen txostenera bialtzea erabagiko dau, proposamenak aztertzeke, formula bidez kuantifikatu ezin diran esleipen-erispideei jagokenez.

Era berean, aurkeztutako proposamenak baloratzeko, egokitze jotzen dauzen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango dauz, proposamena egin orduko. Aldi berean, txosten horreek eskatu ahal izango dira eskaintzek baldintza-agiriko zehaztapenak beteten dabezala egiaztatu behar danean.

Hori guztia, SPKLren 146. artikuluan aitatzen diran adituen batzordearen edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzeari kalterik egin barik, beti be formulak aplikatuz automatikoki kuantifikatu daitekezan erispideei balio-judizino baten mende dagozan erispideei jagokena baino haztapen txikiagoa esleitzen bazaie. Aitatutako aditu-batzordearen ebaluazioa loteslea izango da Kontratazino Mahaiarentzat, esleipen-proposamena egiteko.

Automatikoki kuantifikatu daitekezan erispideen C) gutun-azala zabaltzeko eta eskaintza ekonomikoak irakurteko ekitaldi publikoari jagokonez, kontratazino-mahaiak automatikoki kuantifikatu ezin diran edo balio-judizino baten mende dagozan erispideen ebaluazioaren emoia jakinarazoko dau. Balorazino orokorrean onartuak izateko gitxieneke puntuazino-atalase bat ezarri bada SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontratazino Mahaiak ez dauz kontuan hartuko gitxieneke puntuazinora iristen ez diran pertsona edo enpresa lizitatzailerik proposamenak.

Ostean, c) gutun-azala zabalduko da, onartutako proposamenak automatikoki ebaluatu daitekezan erispideena, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko dira. Dana dala, automatikoki kuantifikatu daitekezan erispideen balorazino beti egingo da balio-judizino baten mende dagozan erispideen balioespena egin ostean.

Kontratazino-mahaiak, egoki baderitzo, C) gutun-azalak sail sustatzailearen txostenera bialtzea erabagiko dau, proposamenak aztertzeke, formula bidez kuantifikatu daitekezan esleipen-erispideei jagokenez.

Kontratazino Mahaiak esleipen-proposamena egingo deutso kontratazino-organoari, eskaintzen ebaluazino orokorra egin ostean.

Azkenik, Mahaiak proposamenak bialduko deutsoz kontratazino-organoari, aktagaz eta esleipen-proposamenagaz batera.

7.7. Balio anormalki baxuak daukiezan eskaintzak.

Kontratazino-mahaiak anormaltasun-presuntzinoa daukien eskaintzak identifikatu beharko dauz, baldintza-agiri honen karatulako j atalean ezarritako parametro objektiboak aplikatuz.

Kontratazino-mahaiak anormaltasun-presuntzinoan sartutako eskaintza bat edo batzuk identifikatzen dauzenezan, eskaintza aurkeztu dauen lizitatzaleari edo lizitatzaleei eskatu beharko deutse eskaintzea bideragarria dala justifikatzeko behar besteko epea emoteko. Horretarako, egokiak diran informazinoa eta dokumentuak aurkeztu beharko dauz, eta SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetu beharko dau.

Kontratazino-mahaiak pertsona edo enpresa lizitatzaleak epe barruan emondako informazino eta dokumentazino guztia ebaluatuko dau, eta onartzeko edo baztertzeko proposamen arrazoitua egingo deutso kontratazino-organoari. Eskaintza bat ez da ezelan be onartuko kontratazino-mahaiaren proposamena behar lez arrazoitu barik.

7.8. Esleipen-proposamenaren ondorioak

Esleipen-proposamenak ez dau ezelako eskubiderik sortzen proposatutako pertsona edo enpresa lizitatzalearen alde, Administrazioaren aurrean. Dana dala, kontratazino-organoak ez badau kontratua esleitzen egindako proposamenaren arabera, erabagia arrazoitu egin beharko dau.

8. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA, FORMALIZAZINOA ETA KONTRATUAREN FORMALIZAZINOAREN PUBLIZIDADEA.

8.1. Eskaintzen sailkapena.

Kontratazino-mahaiak, pleguan adierazotako esleipen-erispideen arabera, aurkeztutako eta onartutako proposamenak sailkatuko dauz, handienetik txikienera, eta kontratua esleitzeko proposamena egingo deutso eskaintzarik onena aurkeztu dauen pertsona edo enpresa lizitatzaleari. Kontuan hartu beharreko erispide bakarra prezioa danean, eskaintzarik onena preziorik baxuena dala ulertuko da.

8.2. Dokumentazinoa eskatzea

Kontratazino-organoak mahaiaren proposamena onartu ostean, jagokozan zerbitzuak eskatuko deutsoz eskaintzarik onena aurkeztu dauen lizitatzaleari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako dokumentazino hau aurkeztu daian, jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, Kontratazino Mahaiak baloratu eta kalifikatzeko:

1. Kontratazeko betekizunen egiaztagiri administratiboak.

Administrazioagaz kontratau ahal izateko exijiduten diran gaitasun eta kaudimen betekizunak betetzen diran edo ez ikusteko momentu erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen dan unea izango da.

1.1. Jarduteko gaitasuna egiaztatzen daben agiriak:

a) Pertsona fisikoak. Banakako enpresaburuentzat derrigorrezkoa izango da NANA edo ha legez ordezen dauen agiria aurkeztea.

b) Pertsonak juridikoak Pertsona juridikoak diran enpresaburuek jarduteko daukien gaitasuna eratze-eskrituraren bidez egiaztatuko da, eta, hala bajagoko, estatutuen edo sortze-aktaren bidez, non jarduera arautzen daben arauak jasoko diran, pertsona juridiko moetaren arabera jagokon erregistro publikoan behar lez inskribaduta.

Dana dala, kontratuaren xede diran prestazinoak estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak daukiezan helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan egon beharko dira.

Pertsona juridikoek IFKren kopia aurkeztuko dabe.

c) Enpresaburuen aldi baterako alkarteak. Enpresaburuen aldi baterako alkarteetan, bakotxak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatu beharko dauz, SPKLko artikuluen arabera. Aldi baterako alkartearen ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala zehazteko, alkarteko kide bakotxarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira, SPKLn eta APKLEOren 52. artikuluan sailkapenerako ezarritakoari kalterik egin barik.

Kontratua aldi baterako enpresaburu-alkarte bateri esleitzen bajako, alkarte hori eskritura publikoan eratu dala egiaztatuko dau, bai eta alkarte horri esleitutako IFK be, kontratua formalizatu aurretik.

Edozelan be, aldi baterako enpresa-alkartearen iraupena bat etorriko da kontratuaren iraupenagaz, azkendu arte.

d) Espainiarrak ez diran enpresaburuak, Europar Batasuneko estatu kideetako herriarrak badira. Enpresaburu horreek jarduteko daukien gaitasuna egiaztatzeko, kasuan kasuko erregistroan inskribatuta egon beharko dabe, ezarrita dagozan estaduko legeriaren arabera, edo zinpeko autorpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dabe, erregelamendu bidez ezartzen diran baldintzetan, eta Batasunean aplikau beharreko xedapenakaz bat etorritz.

e) Atzerriko beste enpresa batzuk. Atzerriko gainerako enpresek jarduteko daukien gaitasuna Espainiak jagokon estatuan daukan Ordezkaritza Diplommatiko Iraunkorrek

edo enpresaren egoitza dagoan lurralde-eremuko Bulego Kontsularrak emondako txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horretan, enpresek alde z aurretik egiaztatu beharko dabe tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta dagozala, edo, halangorik ezean, tokiko trafikoa ohikotasunez jarduten dabela, xedeak barne hartzen dauzen jardueren esparruan. Era berean, Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dabe, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak Espainiako enpresek Administrazioagaz eta sektore publikoagaz egindako kontratazioan parte hartzea onartzen dauela egiaztatzen dauena. Enpresek, halan bajagoko, kontratuaren xede dan jarduera edo prestazioa egiteko eskatzen dan enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatu beharko dabe.

1.2. Pertsona edo enpresa lizitatzailen ordezkaritza

Beste pertsona juridiko baten izenean agertzen diranek edo proposamenak sinatzen dabezanek edo pertsona juridiko bat ordezkutzen dabenek horretarako ahalorde nahikoa izan beharko dabe. Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak ahalmenen eskuordetza iraunkorra jasoten badau, Merkataritzako Erregistroan inskribaduta egon beharko da. Ekitaldi zehatzerako ahala bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.5. artikuluaagaz bat etorrita.

Ganera, ahalordetze edo ordezkaritza emon jakon pertsonaren NANaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dau.

1.3. Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala.

Enpresaburuak bere kaudimena egiaztatu beharko dau, agiri honetako T atalean adierazoten diran kaudimen-betekizun espezifikoak beteten dauzela egiaztatuz. Beharrezko kaudimena egiaztatzeko, pertsona edo enpresa lizitatzaila beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, erakunde horreekaz daukazan loturen izakera juridikoa edozein izanagaitik be, frogatzen badau kontratua gauzatzeko benetan bitarteko horreek daukazala. Kasu horretan, kaudimen hori emoten dauen enpresako zuzendaritza-organoak emondako ziurtagiria aurkeztu beharko da, egoera hori egiaztatzen dauena.

1.4. Atzerriko enpresen jurisdikzioa

Atzerriko enpresek Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jarten dirala dinon adierazpena aurkeztu beharko dabe, kontratutik zuzenean edo zeharka sortu daitekezan gorabehera guztietarako, eta, halan bajagoko, atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko deusie.

2. Zerga Administrazioak egindako ziurtagiri positiboa, zerga-betebeharrak egunean daukazala egiaztatzen dauena. Enpresa lizitatzailerak aldi baterako enpresa-alkartea bada, alkatere horretan parte hartzen dauen enpresa bakoitxari jagokona aurkeztuko da.
3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emondako ziurtagiri positiboa, gizarte-segurantzazagako betebeharrak egunean daukazala egiaztatzen dauena, edo, halan danean, jagokon mutuan alta emanda dagoala egiaztatzen dauena. Enpresa lizitatzailerak aldi baterako enpresa-alkartea bada, alkatere horretan parte hartzen dauen enpresa bakoitxari jagokona aurkeztuko da.
4. Uneko ekitaldiari jagokon alta edo Ekonomia Jardueren ganeko Zergaren azken ordainagiria kontratuaren xedeari jagokon epigrafean, zerga horren matrikulan baja emon ez izanaren erantzukizunpeko adierazpen bategaz osotuta. Zerga horretatik salbuesita egon ezker, zerga horren matrikulan baja emon ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dau, eta salbuespenaren kasua adierazoko dau. Enpresa lizitatzailerak aldi baterako enpresa-alkartea bada, alkatere horretan parte hartzen dauen enpresa bakoitxari jagokona aurkeztuko da.
5. Hala bajagoko, kontratua gauzatzeko erabili edo adskribatzeko konpromisoa hartu dauen baliabideak benetan eskura daukazala egiaztatzen dauen dokumentazinoa, SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoagaz bat etorritz.
6. Behin betiko bermea eratu dala egiaztatzen daben agiriak. Aldi baterako enpresa-alkartean kasuan, parte hartzen daben enpresen arrazoi sozialak eta IFK zehaztu beharko dira. Era berean, parte hartzen daben enpresetako batek edo batzuek eratu ahal izango dabez bermeak, oro har, eskatutako zenbatekoa lortzen badabe eta aldi baterako alkatereko kide guztiak solidarioki bermatzen badabez.
7. Esleipenduna aldi baterako enpresa-alkartea bada, epe beraren barruan aurkeztu beharko da botere nahikoa daukan ordezkari edo ahaliduna eratzeko eta izendatzeko eskritura publikoa. Era berean, alkaterean parte hartzen dauen enpresa bakoitxak Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboak eta jarduera ekonomikoen zergari buruzko dokumentazinoa aurkeztu beharko dauz.
8. Halan bajagoko, erantzukizun zibileko polizaren kopia eta primaren ordainagiria edo aseguru-erakundearen ziurtagiria.
9. Hitzarmen kolektiboari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kontratuaren xede dan jarduera egiten daben langileei aplikatuko jakena.

Lizitatzailerak erregistro ofizialeko ziurtagirien bidez egiaztatzea

Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, sailkapena eta ziurtagiri positiboak egiaztatze dokumentazioaren orde, honako erregistro honeetako edozein emoten dauen ziurtagiria aurkeztu ahal izango da:

- a) Estaduko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala edo c) Erkidegoko sailkapen-ziurtagiriaren bidez.

Ziurtagirian jasota ez dagozan inguruabarrak eskatutako dokumentazioagaz egiaztatu beharko dira.

Lizitatzailleen Erregistroko inskripzio-ziurtagiriagaz batera (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua), bertan jasotako datuen indarraldiari buruzko lizitatzailleen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Erregistroko datuak aldatu badira, beren-beregi aitatuko da adierazpen horretan, jagokon dokumentazioa erantsita.

Lizitatzailleen Erregistroaren ziurtagirian jasotako datuen indarraldiari buruzko erantzukizunpeko adierazpena barriro egin beharko da kontratua formalizatzen dauen dokumentuan, esleipenduna izan ezker.

Zuzenketea. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkean akatsak edo omisinoak ikusi ezker, interesdunari posta elektronikoz jakinarazoko jako, eta gehienez be hiru egun balioduneko epea emongo jako akatsa zuzendu daian.

Ez-betetea.

Errekerimendua adierazotako epean behar lez beteten ez bada, pertsona edo enpresa lizitatzailleak bere eskaintza erretiratu dauela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3ko zenbatekoa eskatuko jako, zigor modura. Zenbateko hori, lehenik eta behin, eratu bada, behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, beti be eragotzi barik kontratatze debekua deklaratzeari, SPKLren 71. artikuluko 2. paragrafoko a) letran ezarritakoaren arabera.

Kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko jako hurrengo pertsona edo enpresa lizitatzailleari, eskaintzak sailkatu diran hurrenkereari jarraituz.

8.3. Lizitazioa hutsik

Kontratazio-organoak ezin izango dau adierazo lizitazioa hutsik geratu dala, baldintza-agirian jasotako erispideen arabera onargarria dan eskaintza edo proposamenen bat dagoanean.

8.4. Esleipen-prozeduran atzera egitea edo kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabagia

Prozeduran atzera egiteko, kontratua egiteko arauen edo adjudikazino-prozedurea arautzen dabenean arauen artean zuzendu ezin daitekeen akatsen bat egon beharko da, eta espedientean aldiberekotasunaren zergaitia justifikatu beharko da. Atzera egiteak ez dau eragotziko lizitazio-prozedura bat berehala hastea.

Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabagia bakarrik hartuko ahalko da espedientean behar dan lez justifikutako interes publikoko arrazoiakaitik. Kasu horretan, ezin izango da haren xedearen beste lizitazio bat sustatu, erabagia oinarritzeko alegatutako arrazoiek bere horretan irauten dabenean.

Kontratazino-organoak esleipen-prozedurea bertan behera ixten badau edo jagokon deialdia egin jakon kontratu bat ez esleitzea edo ez egitea erabagiten badau, pertsona edo enpresa lizitatzaileri jakinarazoko deute, eta Europako Batzordeari be jakinarazoko deute erabagi hori, kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarten danean.

Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabagia edo prozeduran atzera egitea kontratazino-organoak erabagi ahal izango dau kontratua formalizatu orduko. Kasu horretan, lizitazioan parte hartzeko gauza diran pertsonak edo enpresak konpentsatuko dira iragarkian edo pleguan aurreikusitako moduan egindako gastuengaitik, edo, halangorik ezean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazino-erispideekin bat etorritik, administrazio-prozedura erkidearen izapideen bidez.

8.5. Esleipena.

Kontratazino-organoak dokumentazinoa hartu osteko bost egun baliodunen barruan esleitu beharko dau kontratua.

8.6. Esleipen-ebazpena jakinarazotea eta argitaratzea

Esleipenaren ebazpenak arrazoitua izan beharko dau, eta lizitatzaileri jakinarazoko jake; kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, 15 eguneko epean.

Esleipenaren jakinarazpenean eta publizidadean beharrezko informazinoa jaso beharko da, esleipen-prozeduran interesa daukien pertsonen edo enpresek esleipen-erabagiaren aurka behar adina funtsatutako errekurtsua jarteko aukerea euki daien. Besteak beste, informazio hau jaso beharko da:

- Esleipen-prozeduratik kanpo itxitako pertsona edo enpresa lizitatzaileren eskaintzea ez onartzeko arrazoiak, honako honeek barruan: SPKLren 126. artikuluen 7. eta 8. zenbakietan jasotako kasuak, baliokidetasunik ezaren erabagiaren arrazoiak edo zerbitzuak errendimendu-eskakizunakaz edo eskakizun

funtzinonakaz bat ez datozela erabagiteko arrazoiak; eta pertsona edo enpresa lizitatzailerei esleitutako balorazinoen banakapena, pertsona edo enpresa adjudikazioduna barruan dagoala.

- Pertsona edo enpresa esleipendunaren izena, pertsona edo enpresa esleipendunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, beti be erabagi bada haren eskaintzea aukeratu dala eskaintzak onartu jakezan ganerako pertsona edo enpresa lizitatzailerek aurkeztutakoaren aldean.
- Enpresak kontratuaren xede dan jarduerara egiten daben beharginei aplikagarria jaken hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa.

Jakinarazpenean, SPKLren 153.3 artikuluan xedatutakoaren arabera kontratua formalizatzeko epea adierazoko da.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoaren bidez egingo da, hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Esleipenaren arrazoiari SPKLren 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko jako.

8.7. Kontratua burutzea eta legezko egitea.

Kontratua formalizazioagaz batera gauzatuko da. Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen dan administrazio-dokumentu batean formalizatuko da, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Dana dala, pertsona edo enpresa kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango dau, eta egilespenaren ondoriozko gastuak bere kontura izango dira. Kasu horretan, pertsona edo enpresa kontratistak agiri horren kopia legitimatu bat eta soil bat entregatu beharko deutsoz Administrazioari, formalizatu eta gehienez be hilabeteko epean.

Kontratua formalizatzen dauen dokumentuan ezin izango da ezelan be sartu esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Kontratua formalizatzeko epea:

- a) Kontratuari kontratazioaren arloko errekurso berezia ipini ahal bajako SPKLren 44. artikuluen arabera, kontratua ezin izango da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena pertsona edo enpresa lizitatzailerei bialdu jakenetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek kontratua formalizatzeko eskatuko deusie pertsona edo enpresa esleipendunari, gehienez be bost eguneko epean, errekerimendua jasoten dan egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, hamabost egun balioduneko epea igarota kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik ipini ez bada. Bardin jokatu da errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoak etendura bertan behera ixten dauenean.

b) Ganerako kasuetan, kontratua hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, adjudikazioa pertsona edo enpresa lizitatzailerei bitarteko elektronikoen bidez jakinarazoten jakenetik hasita.

Ez formalizatzearen ondorioak. Esleipendunari egotzi ahal jakozan arrazoiakaiti kontratua adierazotako epean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren (BEZ kanpo) ehuneko 3 eskatuko jako, zigor modura, eta, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, berme hori eratu bada, beti be eragotzi barik kontratatze de bekua deklaratzeta, SPKLren 71. artikuluko 2. paragrafoko b) letran ezarritakoaren arabera.

Kontratua ez gauzatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bajakoz, atzerapenak eragin leikezan kalte eta galerakaitiko kalte-ordaina emongo jako kontratisteari. Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi alde aurretik formalizatu barik, espedientea larrialdikoa danean izan ezik.

8.8. Kontratuaren formalizazioaren publizidadea.

Kontratuaren formalizazioa, jagokon kontratuagaz batera, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, gehienez be kontratua burutu eta hamabost eguneko epean.

Kontratua erregulazio harmonizatuaren menpe dagoanean, formalizazio-iragarkia, ganera, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Kontratazio-organoak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bialduko dau formalizazio-iragarkia, gehienez be kontratua formalizatu eta 10 egunera. Kasu horretan, formalizazio-iragarkiak profilean adierazo beharko dau noz bialdu zan, kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek espedienteen froga nahikoa itxiko daben data, eta ezin izango dabe iragarkian jasotakoez bestelako aitemenik jaso. Edozelan be, argitaratu ahal izango da kontratazio-organoak ez badau argitaratu izanaren jakinarazpenik jaso bialdutako iragarkia jaso izana berretsi eta 48 ordura.

Kontratua egin izanari buruzko datu jakin batzuk ez dira argitaratu ahal izango, beti be, espedientean behar lez justifikauta, uste bada informazino hori zabaltzeak arau baten aplikazinoa oztopatu daikela, interes publikoaren aurkakoa izan daitekela edo enpresa publiko edo pribatuen interes komertzial legitimoiei edo enpresa horreen arteko lehia leialari kalte egin ahal deusola, edo isilpeko edo erreserbatutzat jotako kontratuak badira, edo segurtasun-neurri bereziakaz batera gauzatu beharrekoak badira, indarrean dagoen legeriaren arabera, edo Estaduaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteak halan eskatzen dauenean, eta halan adierazo danean SPKLren 19. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian ezarritakoagaz bat etorritz.

Kasu horretan, gardentasunari, informazino publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aitatzen dan Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari txostena egiteko eskatu beharko deutso kontratazino-organoak, eta bertan ikusiko da informazino publikoa eskuratzeko eskubidea gailentzen dan ala ez argitaratu barik gorde gura diran ondasunen aurrean. Txostena gehienez hamar eguneko epean egin beharko da.

Konfidentzialtasuna. Informazino publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta lege honetan esleipenaren publizidadeari eta pertsona edo enpresa hautagaiei eta lizitatzailerei emon beharreko informazinoari buruz jasotako xedapenei kalterik egin gabe, kontratazino-organoek ezin izango dabe zabaldu enpresaburuek konfidentzialtzat hartu daben informazinoa, beti be SPLren 133. artikuluen arabera eskaintzea aurkezteko orduan. Konfidentzial-izaereak eragina dauka, besteak beste, sekretu tekniko edo merkataritzakoetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta eskumena faltsutzeko erabili daiteken edukia daukien bestelako informazinoetan, dala lizitazino-prozedura horretan, dala hurrengo batzuetan.

8.9. Enpresa lizitatzailiek aurkeztutako dokumentazinoa itzultzea.

Kontratua esleitu ostean, eta errekursoak aurkezteko epeak amaitu eta ondino aurkeztu ez badira, esleipenduna izan ez diran pertsona edo enpresa interesdunen esku geratuko da proposamenakaz batera aurkeztutako dokumentazinoa. Dana dala, esleipena irmo bihurtu eta hiru hilabeteko epea igarotakoan, Administrazinoak erabagi ahal izango dau pertsona edo enpresa lizitatzailiek aurkeztutako dokumentazinoa suntsitzea, dokumentazino hori kendu ez badabe.

9. KONTRATUA BETEARAZOTEA

9.1. Kontratua betearazotea

Kontratua pertsona edo enpresa kontratistaren arrisku eta menturaren arabera betearazoko da.

Kontratua gauzatzeko, zorrotz bete beharko dira agiri honetan eta karatulan jasotako klausulak, baldintza teknikoen agirian jasotakoak, eta, edozein kasutan, jardun beharko da kontratuaren arduradunak (halangorik izentau bada) edo kontratazino organoaren peko zerbitzuek pertsona edo enpresa kontratistari emondako interpretazino jarraibideen arabera.

Pertsona edo enpresa kontratisteari edo haren menpeko pertsoneri egotzi dakioketza ekintzen edo ez-egiteen ondorioz kontratua arriskua jarten danean, kontratua barriro be egoki burutzea lortzeko edo ordena berrezartzeko beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daiazala eskatu ahal izango dau Administrazioak.

Pertsona edo enpresa kontratista izango da egiten dauzen lanen eta emoten dauzen prestazino eta zerbitzuen kalidade teknikoaren erantzule, bai eta kontratua gauzatzean omisino, akats, metodo desegoki edo ondorio okerren ondorioz administrazioari edo hirugarrenei sortzen jakezan ondorioen erantzule be.

Pertsona edo enpresa kontratistek konpromisoa hartzen dau kontratuaren emoi behar lez erabilteko beharrezkoa dan informazino osogarria eta laguntza teknikoa emoteko (dokumentuak eta era guztietako informazinoak).

9.2. Administrazioaren prerrogatibak

Kontratazino-organoak honako prerrogatiba hauek daukaz: administrazio-kontratuak interpretatzea, horreek beteteak sortzen dauzen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengaitik aldatzea, kontratua betearaztearen ondorioz pertsona edo enpresa kontratistari egotzi ahal jakon erantzukizuna deklaratzeko, kontratuaren betearazpena etetea, suntsiarazotea erabagitea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, beti be SPKLn adierazotako muga barruan eta baldintzen eta ondorioen arabera.

Era berean, kontratazino-organoak pertsona edo enpresa kontratistek kontratua exekutatu bitartean egiten dabezan jarduerak ikuskatzeko ahalmena dauka, SPKLn kontratu mueta bakotxerako ezarritako baldintzetan eta muga arabera. Ikuskatzeko ahalmen horreek ez dabe ezelan be ekarriko kontratazino-organoak pertsona edo enpresa kontratistak bere jarduerak garatzen dauzen instalazinoak, bulegoak eta ganerako kokalekuak ikuskatzeko daukan eskubide orokorra, non eta kokapen horreek eta baldintza teknikoak ez diran erabagigarriak kontratuaren xede diran prestazinoak garatzeko. Kasu horretan, kontratazino-organoak beren-beregi eta xehetasunez justifikatu beharko dau hori guztia administrazio-espeditentean.

Aitatutako prerrogatibak baliatzeko prozedurea SPKLren 191. artikuluan xedatutakoaren arabera izango da. Kontratazino-organoak hartutako erabagiek amaiera emongo deusie administrazino-bideari, eta berehala betearazotekoak izango dira.

9.3. Epea betetea

Pertsona edo enpresa kontratistak kontratua beteteko ezarritako epe osoaren barruan bete beharko dau kontratua, bai eta ondoz ondoko exekuzinorako adierazotako epe partzialen barruan be.

Berandutzako eraketak ez dau alde z aurretik Administrazinoaren agindurik behar.

Atzerapena pertsona edo enpresa kontratistari egotzi ezin jakozan arrazoiengaitik gertatzen bada, eta hasikerako exekuzino-epea luzatu ezker o, kontratistak bere konpromisoak beteteko aukerea emoten badau, kontratazino-organoak epe bat emongo dau, gitxienez, galdutako denporearen bardina, pertsona edo enpresa kontratistak beste epe txikiago bat eskatzen dauenean izan ezik.

9.4. Exekuzino akastuna eta atzerapena

9.4.1. Ez-betete partziala edo betete akastuna.

Kontratuaren xede dan prestazinoa behar lez beteten ez bada, edo ez badira beteten SPKLren 76.2 eta 202.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera ezarritako giza baliabideak edo baliabide materialak dedikatzeko edo atxikitze ko konpromisoak edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak (sozialak, etikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak), edo ez badira beteten eskaintzak baloratzeko oinarri modura balio izan eben erispideak, Administrazinoak zigorrak ezarri ahal izango dauz, eta ez-betetearen larritasunagaz proportzionalak izan beharko dabe. Zigorren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa (BEZ barik), ez eta guztizko zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 50 baino handiagoa be.

Pertsona edo enpresa kontratistak, berari leporatu ahal jakozan arrazoiengaitik, kontratuan zehaztutako prestazinoen betearazpena partzialki bete ez badau, Administrazinoak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiarazotea edo ez-betetearen larritasunagaz proportzionalak izango diran zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango dau, eta horreen zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa (BEZ barik), ez eta horreen guztizkoa kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino handiagoa be.

9.4.2. Berandutzea.

Pertsona edo enpresa kontratistak, berari egotzi ahal jakozan arrazoiengaitik, atzerapena izan badau epe osoa edo epe partzialak beteteari jagokonez, edo epe partzialak betetean izandako berandutzeak arrazoiz pentsatu eragiten badau ezin dala epe osoa bete, Administrazioak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, aukeratu ahal izango dau kontratua suntsiarazotea edo eguneko zigorrak ezartzea, 0,60 euroko proportzinoan kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitxeko (BEZ barik).

Kontratazino-organoak zigor desbardinak ezarri ahal izango dauz, kontratuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, kontratua behar lez gauzatzeko beharrezkotzat jotzen danean eta baldintza-agiri honen karatulan aurreikusi danean.

Atzerapenarengaitiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5en multiplora heltzen diran bakoitxean, kontratazino-organoak ahalmena eukiko dau kontratua suntsitzeko edo zigor barriak ezarri gauzatzen jarraitzeko.

Administrazioak suntsiarazpenaren alde egiten badau, kontratazino-organoak erabagi beharko dau, beti be pertsona edo enpresa kontratisteari entzun ostean; harek aurka egiten badau, Estatu Kontseiluaren edo jagokon autonomia-erkidegoko organo aholku-emoile baliokidearen irizpena jaso beharko da.

Zigorrak eta kalte-galerak ezartzea: Zigorrak kontratazino-organoaren erabagi bidez ezarriko dira, kontratuaren arduradunak proposatuta. Erabagi hori berehala betearazoko da, eta pertsona edo enpresa kontratistari ordainketa oso edo partzial modura ordaindu behar jakozan zenbatekoak kenduz gauzatuko dira, edo ordainketatik kendu ezin diranean eratu dan bermetik kenduz.

Zigor horreek aplikatzeak eta ordaintzeak ez dau baztertzen Administrazioak kalte-galerengaitik jaso daiken kalte-ordaina.

9.5. Kontratistaren erantzukizuna, kontratua gauzatzean hirugarrenei eragindako kalteakaitik.

Pertsona edo enpresa kontratistek kontratua gauzatzeak eskatzen dauzen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dauz.

Kalte horreek Administrazioaren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio diranean, Administrazioak eukiko dau erantzukizuna, legeetan adierazotako muga barruan.

9.6. Kontratuaren prezioa.

9.6.1. Prezio zehatza.

Kontratuaren prezioa zehatza eta eurotan adierazoa izango da, eta unitateko prezioetan eta oroharreko prezioan formulatu ahal izango da. Edozelan be, BEZaren zenbatekoa partida independente modura adierazoko da.

Galarazota dago prezioa geroratuta ordaintzea, salbu eta ordainketa-sistema finantza-damutzearen modalitatearen bidez edo erosteko aukerea emoten dauen errentamenduaren bidez ezartzen danean, bai eta SPKLk edo beste lege batek beren-beregi baimentzen dauenean be.

9.6.2. Kontratistarentzako ordainketak.

a) Pertsona edo enpresa kontratistak eskubidea izango dau egindako prestazinoagaitik hitzartutako prezioa ordaintzeko, SPKLn eta kontratuan ezarritakoaren arabera.

b) Pertsona edo enpresa kontratistak eskubidea izango dau, berebat, kontratuaren exekuzinoa prestatzeko eragiketen zenbatekoagaitik konturako ordainketak jasoteko, kontratuaren xedean sartuta badagoz, agiri honen karatulan ezarritako baldintzetan, kontratuaren zenbateko osoaren% 20ra arte, HAKLEOren 201.2 artikuluan ezarritako betekizunakaz bat etorritz; berme bidez ziurtatu beharko dira ordainketa horreek.

c) Pertsona edo enpresa kontratistak hirugarren bateri laga ahal izango deutso, lege ezarritako bideetako edozein erabiliz, kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea.

Kobranta-eskubidearen lagapena Administrazioaren aurrean eraginkorra izan daiten, ezinbesteko betekizuna izango da lagapen-erabagia Administrazioari modu frogagarrian jakinarazotea. Administrazioak lagapen-erabagiaren barri izan ostean, ordainketa-agindua lagapen-hartzailearen alde emon beharko da. Lagapena Administrazioari jakinarazo baino lehen, pertsona edo enpresa kontratistaren edo lagatzailearen izenean egindako ordainketa-aginduek ondorio askatzaileak eukiko dabez.

Kobratzeko eskubidea sortu eragiten dauen hartu-emon juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dabe ondoriorik izango Administrazioaren aurrean. Edozelan be, Administrazioak lagapen-hartzailearen aurka ipini ahal izango dauz kontratu-erlazinoaren ondoriozko salbuespen kausal guztiak.

D) Emondako zerbitzuen kontratuan xedatutakoagaz bat datozela egiaztatzen daben agiriak onartu eta hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dau Administrazioak

prezioa, horregaitik eragotzi barik 210.4 artikuluan ezarritakoa, eta atzeratzen bada, pertsona edo enpresa kontratistari ordaindu beharko deustoz berandutze-interesak eta Kobrantza-kostuengaitiko kalte-ordaina, eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dauzen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan. Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, pertsona edo enpresa kontratistak jagokon administrazino-erregistroan aurkeztu beharko dau fakturea, epe barruan eta eraz, zerbitzua emoten danetik hogeita hamar eguneko epean.

Administrazinoak beharrezko agiriak onartu beharko dauz emondako zerbitzuak kontratuan ezarritakoagaz bat datozela egiaztatuz, beti be zerbitzua emon eta hogeita hamar eguneko epearen barruan.

Edozelan be, pertsona edo enpresa kontratistek fakturea, faktura elektronikoaren ganean indarrean dagoan araudian ezarritako baldintzen arabera, jagokon administrazino-erregistroan aurkezteko hogeta hamar eguneko epea beteten ez badau, interesen sortzapena ez da hasiko, harik eta fakturea behar dan moduan aurkezten dan egunetik hogeta hamar egun pasau arte, administrazinoak adostasuna onartu barik eta, holan bajagoko, jagokon ordainketea egin barik.

Ordainketea lau hilabete baino gehiago atzeratu ezker, pertsona edo enpresa kontratistek kontratua bertan behera ixteko aukerea izango dau, baina hilabete lehenago jakinarazo beharko deutso Administrazinoari, etendura horren ondorioz sortu daitekezan eskubideak SPKlan xedatutako baldintzetan autortu dagiazan.

Administrazinoaren atzerapena zortzi hilabetetik gorakoa balitz, kontratistek kontratua amaitzeko eta horren ondorioz sortutako kalteen ordainketea jasoteko eskubidea izango dau.

Zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko arauetan ezarritakoari kalterik egin barik, kontratua gauzatzeagaitik egin beharreko konturako ordainketak honako kasu honeetan bakarrik enbargatu ahal izango dira:

- a) Kontratua gauzatzean pertsona edo enpresa kontratistaren beharginek sortutako soldatak eta horreen ondoriozko gizarte-kuotak ordaintzeko.
- b) Pertsona edo enpresa kontratistak azpikontratistakaz eta hornitzaileakaz kontratua gauzatzeari buruz hartutako betebeharrak ordaintzeko.

9.6.3. Ordaintzeko modua.

Prezioa osorik edo zati batean ordaindu ahal izango da, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga baktotxean ordainduz.

Egindako lanen zenbatekoa kontratuaren arduradunaren oneritxiaren bidez egiaztatuko da, SPKLren 198. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Pertsona edo enpresa kontratistak lanak kontratuaren epean edo epeetan egiteko behar baino arinago egin ahal izango dauz lanak. Dana dala, ez dau eskubiderik edukiko urte bakotxean, gauzatutakoaren edo emondako ziurtagirien zenbatekoa edozein dela be, jagokon urtekoan kontsignatutako zenbatekoa baino handiagoa jasoteko.

Edozelan be, Administrazioak onartutako urtesariak berregokitzeko ahalmena dauka, kontratua gauzatzeko erritmora egokitzeko.

9.6.4. Faktura elektronikoa.

Pertsona edo enpresa kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko dau fakturak egin eta bialtzeko.

Faktura elektronikoak Facturae fakturazino elektronikoaren formatu egituratura egokituko dira (3.2. bertsioa), eta sinadura elektroniko aurreratuagaz sinatuko dira, onartutako ziurtagiri batean oinarrituta.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztu beharko dau Faktura Elektronikoaren Sarrera Puntu Orokorren bidez, Larrabetzuko Udalaren webguneko helbidean.

Faktura elektronikoan, agiri honen karatulako beste zehaztapen batzuei buruzko V atalean adierazotako administrazio-organoak adierazo beharko dira.

9.6.5. Prezioen berrikuspena.

Prezioak berrikusiko dira, halan bajagoko, baldintza-agiri honen karatulako LL atalean eta SPKLren 103. artikuluan eta zezeilaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Errege-dekretu horren bidez, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen da.

9.7. Pertsona edo enpresa kontratistaren betebeharrak

9.7.1. Baliabide material eta giza baliabideak.

Pertsona edo enpresa kontratistak, zerbitzua edo prestazinoa egiteko, kontratuan hitzartutako epeen barruan behar diran ekipo eta baliabide osogarriak ipini eta mantendu beharko dauz, eta, bereziki, kontratua gauzatzeko arduradunen zerrendan sartutakoak.

Enpresako langileak enpresa kontratistearen menpe egongo dira, eta enpresa kontratista horrek bakar-bakarrik izango dauz enplegatzailea izateari jagokozan eskubideak eta betebeharrak.

Era berean, enpresa kontratistek ezin izango dauz bere eskaintzan ezarritako langileak ordeztu Administrazioaren beren-beregiko baimenik barik.

Administrazioak ezegokitzat jotzen dauen edozein elementu atzera bota ahal izango dau, eta enpresek ebazpen horren aurka erreklamazinoa aurkezteko eskubidea eukiko dau, hamar egun naturaleko epean, Administrazioak idatziz jakinarazoten deuson egunetik zenbatzen hasita.

9.7.2. Lan-, gizarte- eta zerga-betebeharrak eta ingurumenaren babesa

Kontratistek zorrotz bete beharko dauz arlo hauetan indarrean dagozan lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak: zerga, lana, gizarte-segurantza, desgaitasuna daukien pertsonak integratzea, laneko segurtasuna eta higiea, lan-arriskuen prebentzinoa eta ingurumena babestea. Xedapen horreek indarrean dagoan araudian eta kontratazino hau arautzen daben agirietan ezarri beharko dira.

Enpresa esleipendunak bere betebeharrei erantzuteko kontratatu behar dauzen langileak haren menpe egongo dira bakar-bakarrik, eta kontratua azkentzean ezin izango dira ezelan be finkatu kontratuaren xede diran lanak erakunde kontratatzaileko langile modura egin dabezan pertsonak.

Lizitatzailerek hitzarmen kolektiboari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dabe. Adierazpen hori kontratuaren xede dan jardurea egiten daben beharginei aplikauko jake, esleipendunak izan ezker; berebat, kontratua esleitu ostean langile horreei benetan aplikatzen jakezan lan-baldintzei buruz eskatzen dan informazino guztia eman beharko dabe.

Lan-baldintzei eustea kontratua gauzatzen dan bitartean:

Enpresa esleipendunak bermatu beharko deutse kontratua gauzatzeari lotutako beharginei, haren indarraldi osoan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak ezartzen dauzen lan-baldintzak zorrotz aplikatzen eta mantentzen dirala.

Adjudikazinodunak, kontratua burutu bitartean, aplikau beharreko hitzarmen kolektiboak dakarren soldatea ordaindu beharko dau langileari jagokon lanbide-kategoriaren arabera, baina ezelan be ez jako ordainduko hitzarmenean jasotakoa baino soldata txikiagoa.

Konpromiso bera eskatuko jake enpresa azpikontratistei, eta kontratista nagusiaren erantzukizuna izango da horreek beteten dirala ziurtatzea erakunde kontratatzailearen aurrean.

Lan-baldintzei eusteko konpromisoak ez betetea kontratuak suntsiarazoteko arrazoia izango da. Konpromisoa beteten ez dauena azpikontratista bada, esleipendunak, kontratazino-organoak halan eskatuta, azpikontratua suntsiarazoko dau, esleipendunari ezelako kalte-ordainik emon barik.

Pertsona edo enpresa kontratisteak subrogazinoak eragindako langileei ordaindu bako soldaten erantzukizuna eukiko dau, baita sortutako gizarte-segurantzako kotizazinoena be, nahiz eta kontratua suntsiarazo eta langileak betebeharrak horreek bere gain ezelan be hartuko ez dauezan beste pertsona edo enpresa kontratista bateri subrogatu.

Lan-kontratuen subrogazinoak:

Baldintza-agiri honen karatulan adierazoten bada kontratazinoak kontratuaren xede dan jarduera egiten daben langile guztien lan-kontratuak subrogatzeko betebeharra daukala, hitzarmen kolektiboan edo aplikatu beharreko eraginkortasun orokorreko negoziatzino kolektiboko akordioan subrogazino-eskubidea emoten daben kasuetako batean egoteagaitik, pertsona edo enpresa kontratistak honako eskubide honeek izango dauz subrogatuta: Esleitutako kontratuaren xede dan prestazinoak egiten dabilen enpresaren Gizarte Segurantzako lan-betebeharrak, eta langileen gitxieneko antzinatea errespetatu beharko dau, subrogazino betebeharrak hau sortzen dauen arauak jasotakoak.

Kontratua amaitu orduko, pertsona edo enpresa kontratisteak, enplegatzailea dan aldetik, kontratua gauzatzeari atxikitako langileen kontratuen baldintzei buruz behar dan informazinoak emon beharko dau, lan-subrogazinoak beregaraz dakarzan lan-kostuak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko. Pertsona edo enpresa kontratisteak adierazo behar dau informazino hori emoten dala Kontratazino Publikoan Zenbait Klausula Sozial Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6.1 artikuluan aurreikusitakoak beteteko.

9.7.3. Aseguruak

Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatu eta formalizatu beharko dau, kontratu hau exekutatu bitartean eta berme-epean egin beharreko jardueratik eratorritako arriskuak estaltzeko, ustiapenaren eta lanbide-arriskuen alderdi orokorrari eta patronalari jagokenez, eta, halan danean, amaitutako lanei jagokenez, beti be pertsona edo enpresa kontratista eta, hala bajagoko, pertsona edo enpresa

azpikontratista aseguru modura hartuz, plegu honen karatulan beren-beregi ezarritakoari kalterik egin barik.

Ezbeharragaitiko kalte-ordainen gitxieneko muga 60.000 eurokoa izango da, baldintza-agiri honen karatulan beren-beregi aurreikusitakoari kalterik egin barik.

Dana dala, pertsona edo enpresa esleipendunak jasan beharko dauz frankiziaren zenbatekoari jagokozan kalte-galerak, bai eta aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dabezan kalteak be, bai eta poliza horreetan estaltzen ez diran ondasun eta arriskuei jagokezanak be.

9.7.4. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesa

Kontratistek kontratua gauzatzen dabilen bitartean lortutako informazio konfidentziala errespetatu beharko dau, baldintza-agirietan edo kontratuan informazioak isilpeko izakerea badauka. Gauza bera egingo da izakerarengaitik tratamendu hori daukan informazioagaz. Administrazioak idatzizko baimena emon ezean, pertsona edo enpresa kontratistak eta kontratua gauzatzeko izentautako beharginek ezin izango dabe beretzat erabili, ez eta hirugarrenei emon be, kontratatutako lanei buruzko datu edo informazio konfidentzialik, ezta kontratua gauzatzean eskuratu daikien informazio konfidentzialik be, eta, beraz, eskura daukiezan baliabide guztiak ipini beharko dabez, egindako lanetik eskuratutako informazioa eta emoi konfidentzialak eta isilpekoak izan daitezkan. Betebehar hori bost urtean mantenduko da, informazio hori jakin danetik, baldintza-agirietan epe luzeagoa ezartzen ez bada.

Edozelan be, datu pertsonalen tratamendua ez dakarren lanak eginkeran, enpresak eta beharginek galarazota daukie datu pertsonalak eskuratzea, eta isilpean gorde behar dabez zerbitzua emonkeran langileek jakin daikiezan datuak.

Lana gauzatzearen ondorioz datu pertsonalak erabilten badira, pertsona edo enpresa kontratistek oso-osorik errespetatu beharko dauz Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta ha garatzeko araudia, Udalak zerbitzua behar lez emoteko bere esku ipinten dauzen erabiltzaileen datuei jagokenez.

Kontratistek kontratua betearazteko lanak garatzerakoan bete beharko dabezan datuak babesteko orduan daukiezan betebeharren inguruko prestakuntzea eta informazioa emon beharko deutse beharginei, bereziki datuak isilpean gordetako betebeharrari jagokonez. Esleipendun enpresak berak erantzun beharko deutse beharginen hutsegiteen ondorioz sortu leitekezan legeko arau-hausteei.

Gainera, betebeharrak beteko behar dira, aipatutako legearen 9. eta 12. artikuluetan xedatutakoaren arabera:

1.- Enpresek ez dute datu horiek aplikatuko eta ez dute erabiliko kontratu honen xede eta zerbitzua ez eta beste helburu batzuetarako.

2.- Enpresek ez dute datu horien barri emango beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei, ezta gordeteko be, indarrean dagoan legeriak aurreikusitako kasuetan izan ezik.

3.- Enpresek konpromisoa hartzen dute datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik barik tratatzea edo eskuratzea saihesteko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzeko, beti be teknologiaren egoera, biltegiratutako datuen izakerea eta arriskuak kontuan hartuta (arriskuak giza ekintzearen edo ingurune fisiko edo naturalaren ondorioak izanik ere).

4.- Kontratu-prestazioa bete ostean, enpresek erabiltzaileen datuak itzuli behar dituzte Mankomunitateari, bai eta tratamenduaren xede eta datu pertsonalen bat jasotzen dauen edozein euskarri edo dokumentu be, enpresak bere esku gorde behar dauzkan izan ezik, indarrean dagoan legedian xedatutakoaren arabera.

9.7.5. Hizkuntza-arloan kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

Kontratuaren xede eta zerbitzua emoteak herritarrek hartu-emon zuzena dakarrenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 6. artikuluan ezarritako ofizialtasun bikotzeko araubidea bete behar da, Euskarearen erabilera normalizatzeko zehazkiaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legeak eta hori garatzen dauen araudiak araututakoa. Hizkuntza ofizial biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintza berezia da, eta ez beteteak kontratu honetako edozein klausula ez beteteen orok har aurreikusitako ondorioak eragingo dituzte.

9.8. Kontratuaren aldarazpenak

Administratzaile-kontratuak interes publikoko arrazoiengaitik bakarrik aldatu ahal izango dira, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta SPKLren 191. artikuluan araututako prozedurari eta 207. artikuluan jasotako berezitasunei jarraituz.

A) Aurreikusitako aldaketak:

Kontratuaren aurreikusitako kasuengaitik aldatu ahal izango da, gehienez be hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte, baldintza-agiri honen karatulan ezarritako irismen, muga eta baldintzen arabera.

Kontratuetan, enpresaburuak bere burua behartzen badu zerbitzua hurrenez hurren eta unitateko prezioan gauzatzera, prestazioen gutzitza kopurua zehatz-mehatz zehaztu barik kontratua egiteko unea, prestazio horiek Administrazioaren beharren mende

dagozalako; kontratuaren indarraldiaren barruan, benetako premiak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira, beharrezko aldaketa izapidetu beharko da hasieran onetsitako gehieneko aurrekontua agortu orduko; horretarako, bada, premina barrien gehieneko zenbatekoa estaltzeko behar dan kreditua gorde beharko da.

Aurreikusitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira pertsona edo enpresa kontratistarentzat, pertsona edo enpresa kontratistari entzun ostean, eta administrazino-agirian formalizatu beharko dira, behin betiko bermea doitu ostean, halan bajagoko.

B) Aurreikusi bako aldaketak:

Kontratua burututakoan, aldatu ahal izango da, SPKLren 205. artikulun ezarritako zirkunstantzia eta mugak azaltzen diranean.

9.9. Kontratua etetea.

Administrazioak kontratua etetea erabagiten badau, edo ordainketea lau hilabete baino gehiago atzeratzeagaitik gertatzen bada, SPKLren 198. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, akta bat egingo da, eta, bertan, etetea eragin daben inguruabarrak eta ordainketa gauzatzean izandako egoera jasoko dira.

Etetea erabagi ostean, Administrazioak pertsona edo enpresa kontratisteari ordainduko deusoz harek benetan jasandako kalte-galerak, SPKLren 208.2 artikuluan ezarritako kontzeptuengaitik.

10. KONTRATUAREN IRAUNGIPENA.

Kontratua beteteagaitik edo suntsiarazoteagaitik azkendu edo iraungiko da.

a) Zerbitzu-kontratua betetea.

Kontratua betetzat joko da pertsona edo enpresa kontratistek prestazino osoa egin dauenean, kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioaren nahiaren arabera.

10.1. Zerbitzu-kontratua jasotzea.

Edozelan be, hori egiaztatzeko, harrera-egintza formal eta positibo bat egin beharko da, kontratuaren xede dan prestazinoa amaitu eta hilabeteko epean.

Administrazioak erabagiko dau ea pertsona edo enpresa kontratistek egindako prestazioa bat datorren prestazioa gauzatzeko eta beteteko ezarritako aginduakaz, eta, halan bajagoko, kontratatutako prestazioak egiteko eta prestazioa jasokeran ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko dau. Pertsona edo enpresa kontratistari egotzi ahal jakozan akatsen edo okerren ondorioz, egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioagaz, atzera bota ahal izango dauz, eta ez dau ordaindu beharrik izango, edo, halan bajagoko, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea eukiko dau.

Jarduera hutseko kontratuak edo bitartekoak hasieran aurreikusitako epea edo adostutako luzapenak beteteagaitik azkenduko dira, horregaitik eragotzi barik Administrazioak pertsona edo enpresa kontratistaren erantzukizuna arazteko daukan prerrogatibea, gerora detektatutako balizko ez-beteteengaitik.

Kontratistek eskubidea eukiko dau kontrataturiko zerbitzua betetearen inguruan eginiko oharrek ezagutarazoteko eta entzuna izateko.

APKLEOren 203. eta 204. artikuluetan xedatutakoaren arabera entregatuko dira lanak eta egingo dira zerbitzuak.

10.2. Kontratuaren likidazioa.

Harrera- edo adostasun-akta egiten danetik hogeita hamar eguneko epean, kontratuaren likidazioa erabagi eta jakinarazo beharko jako pertsona edo enpresa kontratistari, eta, halan bajagoko, ondoriozko saldoa ordaindu.

Dana dala, administrazio publikoak harrera hori egin ostean jasoten badau fakturea, hogeita hamar eguneko epea izango dau kontratistek faktura hori jagokon erregistroan aurkezten dauenetik aurrera. Likidazio-saldoa ordaintzen berandutzen bada, pertsona edo enpresa kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasoteko eskubidea eukiko dau, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dauzen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

10.3. Akatsak eta okerrak berme-epean.

Halan bajagoko, berme-epea jasote- edo adostasun-datatik aurrera zenbatuko da.

Berme-epean egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak edo okerrak dagozala, kontratazio-organoak eskubidea eukiko dau pertsona edo enpresa kontratistari horreek zuzentzeko eskatzeko.

Berme-epea amaitu eta Administrazioak ez badau aurreko zenbakietan aitatutako eragozpenik edo salaketarik formalizatu, pertsona edo enpresa kontratistak ez dau erantzukizunik eukiko egindako prestazioagaitik, horregaitik eragotzi barik SPKLren 314. eta 315. artikuluetan obra-proiektuak egitea xede daukien kontratuetan akatsak zuzentzeari eta erantzukizunari buruz ezarritakoa.

b) Kontratua suntsiarazotea

10.4. Kontratua suntsiarazoteko arrazoiak

Zerbitzu-kontratua suntsiarazoteko arrazoiak dira SPKLren 211. eta 313. artikuluetan eta baldintza-agiriaren karatulako V. atalean ezarritakoak, SPKLren 213. eta 313. artikuluetan aurreikusitako ondorioakaz.

11. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZINOA

11.1. Kontratuaren lagapena.

Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak pertsona edo enpresa kontratistak hirugarren bateri laga ahal izango deusoz, beti be lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabagigarriak izan ez badira, eta lagapenaren ondorioz merkatuko lehia benetan murrizten ez bada. Ezin izango jako hirugarren bateri lagapenik baimendu, lagapen horrek kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen badauz, ezaugarri horreek kontratuaren funtsezko elementuak diranean.

Kontratuko eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei lagatzeak SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dauz.

Lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari jagokozan eskubide eta betebehar guztietan.

11.2. Azpikontratazinoa.

Kontratua arautuko daben azpikontratazinoaren arloko arau espezifikoak baldintza-agiri honen karatulako V. atalean adierazoko dira.

Pertsona edo enpresa kontratistak hirugarrenakaz hitzartu ahal izango dau prestazioaren zati bat egitea, salbu eta kontratuan edo baldintza-agiri honen karatulan kontrakoa xedatzen bada, edo, kontratuaren izakeragaitik eta baldintzengaitik,

ondorioztatzen bada pertsona edo enpresa esleipendunak zuzenean gauzatu behar dauela.

Azpikontratuak egiteko, SPKLren 215.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Pertsona edo enpresa azpikontratistek pertsona edo enpresa kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta harek hartuko dau bere gain, beraz, kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean, administrazio-klausula zehatzen pleguen eta karatularen eta kontratuaren baldintzen arabera, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak betetea barruan dala.

I. ERANSKINA.- EKAB AGIRIA

II. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

_____ jaunak/andreak (helbidea: _____; NAN zk.: _____), bere izenean edota _____ enpresaren izenean jarduten dau (IFK: _____; _____ jakinarazpenetarako helbidea: _____; kalea: _____; enpresaren tel: _____; faxa: _____), eta beharrezko ordezkaritza dauka, beti be ahalordea emoteko eskrituran jasotakoaren arabera, halanda ze, honakoa

ADIERAZOTEN DAU:

LEHENENGOA.- Ezagutzen dodala Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta Preskripzio Teknikoen Agiria, bai eta kontratu hau arautuko daben ganerako legeak eta agiriak be, eta horreek guztiak neure gain hartzen dodazala beren-beregi eta men egiten deusdala.

BIGARRENA.- Zerbitzuari jagokonez, _____ euroko zenbateko osoaren truke egitea proposatzen dot, honela banakatuta:

ZENBATEKOA

BEZ

GUZTIRA

Prezio horreetan edozein zerga-eremutako kontzeptu, zerga, gastu, tasa eta ariel guztiak sartzen dira, baita BEZa eta kontratistaren mozkin industrialak be.

_____(e)n, _____(e)ko_____ren_____(e)(a)n.

Oharra.- Beharrezkoa izango da pertsona edo enpresa lizitatzailerik horri buruz aurkeztutako eskaintza ekonomikoa bereiztea eta justifikatzea, EAE gainerako zerbitzuetatik bereiziz

III. ERANSKINA.- KONTRATUA BETEARAZOTeko ATXIKIPEN KONPROMISOA BEHAR ADINA GIZA BALIABIDE ETA BALIABIDE MATERIAL

Nik_____, helbidea
_____ daukadan
honek, neure izenean eta
_____ren izenean
(jakinarazpenetarako
helbidea_____,
_____ telefono zenbakia eta _____ IKF daukazana), honakoa

ADIERAZOTEN DOT:

____zerbitzua burutzeko kontratuari jagokonez, administrazinoko baldintza zehatzen eta teknikoen agirian adierazotako baldintzak beteteko eta kontratua betearazoteko konpromisoa hartzen dodala:

Bere ekoizpen-antolamenduko giza baliabide eta baliabide material nahikoak lanak egiteko.

Eta jasota gelditu daiten, honako adierazpen hau sinatzen dau_____(e)n,
_____(e)(a)n.